EGUNA JEL

Atzo, Oviedo'ko atetan,
Errezola jaunagaz egoala
eriotzaz zauritu eben
paxista ankerrak
Saseta ospatsua.

Lgo. urtia | 47'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 24'gna. eguaztena | 15 eunen

GURE SASETA IL DA

Abisini'n naste ta zarata geyago

Addis-Abeba zaintzen 30.000 gudari ditue italiarrak.-Uste ete dabe indarraren bidez abisinitarren abertzaletasun gogoa itzalduko dabenik?-Graziani osatuaz dua.-Inglaterra'ren izkillu ugaritzeaz errusitarrak eztira pozik.-Gerrate andiko ildakoen oroiz.-Ingelesak arrikatza neurtuten.-Beste izparrak.

EUZKO GUDALBURUAK

Saseta'tar Kandida



Saseta il da!

Izpaf ttunau aizea bezin arin za baldu eta euzko gudari ta efiak miñez iruntsi dabe.

Saseta il da!

Biotz-biotzez kutun eban Euzkadi'tik ufun, Asturias'eko lufetan jausi da, gure abefi onetara begira.

Asturias'era juan ba'zan, Euzkadi' gaitik juan zan, eta bertan abefi ziñopak, martiriak, ilten diran lez jaustean, Euzkadi biotzean ebala jausi da.

Euzkadi'gaitik il da, afotzen lufetan, euzko abertzale gartsu ta adoretsu ori!

卐 卐 卐

Gudalburu gitxi Saseta lako efitaf ta bera lako kufun.

Maitę eben gudariak eta berak maite ebazan, aita-semiak maitatuten diran antzera.

Gipuzkoa'ko mendietan, oraindik gure gudariak esku-utsik ebiltzala, adorez ta kemenez gure luf arek zaindu ta gordeten alegiñak-alegin egin ztun.

Eta arerioen joaldien aufian, gure gudariak itzal-aldietan alaitu, makal unetan sendotu, argal-orduetan indartu ta otz-unetan berotuten gudalburu trebe ta efime lez agertu zan.

Zenbat neke ta zenbat min eroan ebazan biotz andi ta gogo ameslari arek Gipuzkoa arerioen menpe jausten zala ikustean, indafa eta adorea egon afen, izkilurik etzegoalako!

Gipuzkoa'ko mendiak ba'dakie bere bafirik.

Guda-talderik mendian ba-zan an zan bera; tontofik artu biaf ezkero an Saseta aufetik; joaldirik egitekotan bera buru.

Bifitan zauritua izan da Andatza'n lenengoz; geroago Legutiano'n. Eta irugafenean betiko jausi da.

Euzkadi osuak Lizardi'ren olerkiak befesan leikez gaur:

Biotzian min dut,
min etsia,
negaf ixilla
darion mifia..!

Saseta il da!
Atzefitik Gipuzkoa kutunera begira!
Euzkadi'ri begira!
Azkatasunean ames egiten!
Goxan bego!

ORDJONIKIDSE'REN ORDEZKO NOR?

Mosku.—Industri andietako efi ordezkari bafi nor izango dau oindiño ez dabe erabagi.

Gregory Ordjonikidse'ren ordezko norbait bai aipatu daroe. Norbait ori, Georgiako G. P. U.'ren burua da, Berija.

Stalin'en adizkide min ori, Mosku'ra eldu da.

PAXISTAŔEN EPAITEGIAN

Roma.—Gudari-Epaitegi baten paxistaf gudalburu ta onek gudaritza garaian aurpegiko bat eman zion gudari baten auzia aztertzen zeudela, iru tiro jaurti zizkion gudari onek paxistaf gudalburuari ta zaurituaren aundiaz, une lafian utzi.

ITALIA'KO PAXISTAK ETA ABISINITAŔAK BUŔUKAN

Addis Abeba.—Italiafen eta abisiniafen aftean odol jario aundiak sortu dabezan buŕukak izan doguz. Iletan eta zauritutan asko izan da buŕuka ofetan.

Abisiniafak Italia'ren buztafipean gogait-egiten asi dira ta italiafok egundoko zitalen egin yakuz: zigofpe utsean daukez abisiniafak.

Italia'ren erpepean egon nai ez dabelako asi dira abisiniafok gora goraka.

Graziani il gura izan ebela norbaitzuk-eta. 2.000 abisiniaf mofoiloperatu dabez. Beingoan epaituko ei dabez suaga jaurti ebenak eta ofein lagunak.

Uriko bastaf guztiak arakatzen dabez gudariak. 30.000 italiaf gudari ei dagoz uri aretan.

SCHUCHSNING, EŔOMA'RA

Viena.—Uŕengo ilean Eŕoma'ra joango da Schuchsning kanzilefa.

Mussolini'gaz autualdia izango dau, austriaf Ogasun Zaingoko burukidea lagun dauala.

JORGE VI IRUDIZ DIRUAZ

Londres.—Eguen guren egunez, epalaren 25'gn. zabalduko ditue efege bafiaren irudidun diru bafiak.

Gabonetan aterautakoa da Jorge VI' garenaren argazki ori.

SOVIETDAŔEN GUDONTZIAK

Londres.—Uste danez, españaf latefiko itxasbazteŕetan egingo dan kontrola bide, sovietdafen gudontziak Cartagena zaintzeari lotuko dira.

GRAZIANI OSATUAZ

Addis-Abeba.—Graziani efege-ordezkoa ta Liotta gudalburua igarteko-eredu osatu dira. Ausarkeri azala-ta 2.000 abisiniaf atxilotu dabez.

ADIZKIDE DOGUZ IZAN BE!

Berlin.—Hitler'ek Italia'ko ordezkaria'ri bere zorionak emon dautsoz Graziani efege-ordezkoa bizirik geratu dala-ta; ta Mussolini'ri nfutidazki baten bidez bere asafea agertu dautso Addis-Abeba'ko jazokizunoj dala-ta.

MADRID'EKO GUDA-PELIKULARI TXALOKA

Bayona (Euzkadi).—Igazirik, gau batez egundako zapafadea izan zan emengo zine areto baten.

Madrid'eko guda-oñetako pelikula bat emoten ziarduen. Efizalien aufierakada ikusgafi bat agertu zan, esku-bonbaz eta bayonetaz ari zirala. Ontan, jendea zutik jafi zan, eta txalo ta goraka asi.

Zarata ofek zirala ta, argia izetu beaŕa izan zan. Azkenean, amaitueran, bafiro be txalo txaloka asi ziran.

Paxista batek besoa luzatuta paxista agufa egiten asi zan. Egin ba'eban, egin eban. Ango izkanbila!

Eftzañak saftu ziran beingoan, eta bakaf ari aretatik urteteko agindu eutsen osorik geldituko ba'zan.

LEGE BAŔIA ONARTU

Washington.—"Ez saftzeko" lege bafi bat onartu dabe Washington'go Aldundi Nagusia'n; lege ofetan gefan diñarduen alderdiei izkilu munizio ta janariŕik ez bialtzea erabagiten da.

EŔEGEARI TA MUSSOLINI'RI DOMIÑAK...

Roma.—San Marino Eŕkala'ko ordezkaritza'k efegeari ta Mussolini'ri gudari-trebetasun medalea emon dautsoe Etiopia'ko gudea dala ta.

INGLATEŔA'REN IZKILU UGARITZEAZ

Mosku.—Rusia'ko izpafingiak ez ei dabe begi argiz ikusi ingeles Gobernua'ren armak ugaritzeko asmoa.

Ugaritze ofek, beste efi guztietan be gurari eta lei barĉiña sortuko ei-dau, diño "Izvestia"k.

Efusitaf Gobernuak ezetariko lokafi barik, gura dauana egiteko libre geldi beaf dala azaldu daroa.

Izpaf au Alemani'ko iratetxeak emona dozu.

GEŔATE ANDIKO ILDAKOEN OROIZ

Londres.—Alemania'n igandez egin ziran jaietaz jardun dabe izpafingiak. Gudatean ildakoen gomutazko jaia izan dabe alemanak.

Von Blomberg, Alemania'ren aldeztzoi-ndafen buru nausiak egindako itzaldiaren zati batzuk argitaldu ditue.

INGELESAK AŔIKATZA NEURTUTEN

Londres.—"Daily Telegraph"ek diñonez, epalaren lenengoan asiko dira ingeles gudontzien urteroko sayoak.

Lateft gudontziak eta Mediteŕaneo'ko taldea ariko dira. Gibraltar inguruan asiko ditue maniobrak eta bost egunez jardungo dabe. Bestetan baño egun gitxiagotan jardutea, afikatzik ez alpefik galtzeafen ei-da.

Bilbo'ko Euzko-Gastedija

"Oldargi" taldea

"Oldargi" taldeko gudarien etxekoak soiñeko-pardelik edo bialdu nai ba'luta, gauf ostegun-eguerdi artean bialdu dezatela Bilbo'ko Euzko-Gastedi ontara.

Euzko-Gastedi.

Madrid'eko gudaketa

Errepublikarrak lur ugari irabazi ditue

Atzoko jo-aldiak

EGUNEKO GORA-BERAK

Madrid (afatsaldeko 4,15'tan).—Goizaldean erkaldafak Ciudad Universitaria'n Agintari Nagusien, asmoak bete egiezan joaldi gafatz bat asi eben.

Joaldioi suagaketa zafatu-zafatuakin asi eben. Ofen uŕengo suizkilu-bizkof ta morteruekin aftu gura ebezan inguruak astindu ebezan erkaldafak.

Suagaketa ofek asaldariak guda-lubanetatik atara ta gorde-lekuetan saftu euzan, eta orduan erkaldafak Santa Catalina Eŕukafi-Etxea baño gorago guda-luban aftean dagon etxeruntz asi ziran.

Asaldariak guda-lubanetan saftu-saftu eginda eusten asi ziran ta dunbadaka aundia softu zan. Ordu betean dunbadaka iraun ostean guda-lubanetaruntz egin eben eta guda-lubanok lasteŕ ustu ebezan.

Guda-lubanok euron gandu ostean etxea be, lasteŕ menderatu eben. Oindiñokafen euren tokietan jafaitzen eben baneka batzuk ba-ziran eta, esku-suagakin ekin beaŕa izan zan eta lasteŕ garbitu zira- inguruak.

Suagaketa ofen ondoren, bafiren bafiz ekin eta etxe osoa euron mende geratu zan. Len toki ofetatik dunbadosko lafi erabilten ebezan efi-aldezliak.

Hospital Clínico'n egozan moro ta legionarioak efi-aldezlien aufierakada ofen bafi jakin ebenean ijutika etxe ofetatik igesi asi ziran.

Efi-aldezlien **aufierakada galeraso**tekotan arerjuok alde bietatik joten asi ziran, baiña alpefik izan ziran alegiñok.

Urteera ori kaltegafi izan yakoen paxistoi ta erkaldafen erasoaren indafez lasteŕ asi ziran atzeraka ta Hospital Clínico ofetako lurpean ta bastafetan gorde ebezan euren buruak bizirik geratu ziranak.

Paxistak urteera ofetan ildakotan eta zauritutakotan asko izan dabez.

Etxeá ta etxe-ingurako guda-lubanak galtzeak asko ondatu dauz paxistok.

Bofgafen egunean ba-dafai efi-aldezleak asi eben joaldiak Jarama inguruetan.

Izpaf onek emoten doguzan une onetan kementsu gudatzen dira efi-aldezleak eta eurok doguz ekiñaldi astale, be.

Efi-aldezleak aufierakada onen bidez paxistak erdian aftu nai dabez. Paxistak Alemandaf Agintaritza Nagusiak Andalucia'ra, eskatu dabezan laguntzak eldu aftean eustea nai dabe efi-aldezleei.

Laguntza ofeik lasteŕ ei-yatorkekuez; paxisten bultzi ta belbil guztiak zauritu ta ilak jaso ta eruaten diñarduе-ta, gizon bafiak uste baizen azkaf ezin ekafi izango dabez.

Erkaldafen agintarien asmoa Jarama paxistei laguntasuna eldu daikuenean, paxistak menderatu ezindako eran egon daitela dogu.

Morata de Tajuña'n eta La Marafiosa'n diñardue gartzuen. Getafe inguruan guda-oiña aldatzefik ez dabe nai, ori ondamendi izango litzakiue-ta.

Afatsaldeko lenengo orduetan bizi-bizi gudatzen dira alderdi biok. Efi-aldezleak asi dira joten.

Toki berezi **batzuk** menderatu dabez efi-aldezleak. Gafantzitsu yaku izan ori, baiña **aufenengo ez**. Gaurko ekiñaldi onetan dogunik gauzarik edefena **efi-aldezleen** gudatzeko gogoa, menpekotasuna ta batasuna doguz. Beste guda-oiñetan be, guda gogofi dogu. Izpaf onak yatorkuz.

Toki berezi batzuk menderatu da-

Paxistak Gibraltar'en

Asko gitxitu dira

Diru kontrabando ugari

New York.—Azkenengo ila oneitan asko gitxitu dira Gibraltar'en egozan españaf babestuak. Amabost miña español baño geyago egozan leku ortan iralaren azkenetan, eta geyenak eskumatafak ziran.

Afezkero, ostera, euren efietan eta bere menpe egozan lufaldetara itzuliteko zemaiez agindu eutsen Franco'k. Erkaldar mila batzuk Malaga'ra biali ztituen ingeles agindariak, uri ori paxistak artu baño len. Gibraltar'en guztien bear izanak beteteko oña ez bai'eben.

La Linea zear artuten ebazan gayak, ordun, Gibraltar'ek, baña joan etofi ori gelditu beaŕa izan eben.

Afezkero, bafiren bafi, janari ta premiñazko gayak bide ortaz artuten ditue.

Eraman-ekafi oiek dirala-ta, La Linea baso-uritxo bat zana, bederatzi mila biztanledun uri biurtu da aldi labufean. Gibraltar'egazko artuemon onek Algeciras'eri be onurarik laga dautsa.

Paxisten aduana-zafiak, ingelesakin batean, Gibraltar'en lan egiten daben españolaen sartu-urtenak jagoten alegindu oi dira, eguneroko joan-etofi oiek zainduaz, eta batez be "peseta gofien" kontrabandoafi kontrola ezafinayaz. Laurleko gofi ofeik diru-paperak dira, ta gobernu paxistearen seloz joak dituezan ala ez ikusi oi dautsez.

Españaf gobernu efizaleak nai paxistenak, paper-diru bardiña darabile, baña estanpilaz joa ala ez, ortxe aldea.

Paxisten gobernuarena langotxe-sefiua egiñaz, sevillataf aizuntzaleak, egundoko mauka egin dabe orain-arte.

Iru españaf eta ingeles bat atxilotu zituen atzo paxistak La Linea'n. Gibraltar'dik eldu bafiak, 500.000 peseta zidafetan eukezela-ta, legez kontra.

Atxilotuok Sevilla'ra eroan zituen gudariak zainduta, eta an auzipetu ta epaituko ditue. Diñoenez, españoletaŕik bat, abelgofi garazketari ezaguna da.

Diruá gordetia zigor aundipe galerazia dago paxisten artean. Eriotz-zigofez. Baña oindiño iñortxuri be ez dautse oriako zigor astunik ezafi paxistak.

Arestian, beste españaf bi preso artu zituen, 250.000 peseta kontrabandoz sartu nai zituela-ta. Diru paper ofeik Burgos'ko gobernuaren seloz jo bakoak ziran.

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"Unos meses de Gobierno" ixenpurututen dau lenengo idazlana.

Gero be aldaketarik ixango ez dauan eran Euzkadi'ko jazokun gustijak ikusi ta euren goi beya agertuteko, ila batzubetako Jauflaritzea gitxi dala diño.

Jauflaritza au aginbidian dagonezkero nartu ixan dan auferakuntzea ikusteko, baña, aldi labur au be, naikua ixan dala agertuten dau.

Lendik onako aldakuntza ori, agirikua da ixan be. Euzko-Jauflaritza aginpidian jarri ixan dan-ezkero, euzkotafon abefi onek, beste gauza bat dirudi.

Abefi txikitxu au enparauko gustijen oredu agertuten da, gauf, agertu be. As kaltzale-bidetik begiratuten ba dautsagu, aufenengo lefuen agertuten da.

Auferakada au, bafiz, batez be euzko abeftzalientzat, gafantziduna da, geure eskubidiak loftuteko bidian oinkada batzuk aufératu garala diñoskun geznarija da ta.

Euzkadi'ko Jauflaritza'rentzat, bafiz, bere gafasuna agertuteko-ta, aldi au baño egokijagorik softu be ezin eikian. Guda aldi au estuba ta lafija da, ba, aldiñik aldiñenak be kikilduta jarteko gai dana.

Eta alan be, gure agintarijak, aufera eginaz, gufendari ataraten difa. Euzkadi gauf, eskefak euzko-ginfarijei, bere buruba zutunduta erakusten dau.

"Tierra Vasca"

"La politica es realidad." Olantxe ixenpurututen dau lenengo idazlana.

Efiketea egija dala esatian, Euzkadi'k berja dauan azkatasuna loftuteko eskubiderik ez dauala esango dabenik ixan leikenik ez dau uste.

Eta ori egija ixan-ezkero, egi ori ezagututeko aiko maikuetan dabiltzanak-eta, egijaren aufka ikusten dauzala agertuten dau. Egi ori ezagututa onesteko, baña, euzkotafa ixan biaf da. Euzkotafa, ta abeftzalia.

Euzkotafa ez danak, bafiz, Euzkadi'ren eskubiderik ezin dau ezagutu. Ez egija ez dalako, ezagutu gura ez dabelako baño.

Paxiotafak ekafi ixan dauskuben guda-aldi onetan paxiotafak betuteko asmoz egin ixan dan batasuna osotuten dabenen aftian be, euzkotafen eskubidiak ezagutu gura ez dabezan askotxu zenbatu leikez.

Bakotxari beria emoteko mukef agertutia, bafiz, askaltzaliena ta efi-aldezliena ez da, azkatasun eta eskubide gustijen aukalarijena baño.

'Lan Deya"

Gixonari, bere gixa-azkatasun gustija kenduten dautsan latefija daguan abefijan gixona joputu egiten da. Eta itz bat oguzteko adore barik, latefijak aginduten dautsan gustija ixil-ixilik egiten da- Alemania'ri jazoten yakana be, orixe -la.

Doistefijak, ba, bere latefijan jafi ixan ei-dau abefi-indaf gustija. Doistafen latefija, jaungoikoixun bat be-itzan agertuten ei-da. Gixonen eskubidiak be, berak emon eta berak kenduten dauz.

Eta au gustijau Doistefijan jazoten danian, Europa'ko gentzea be afiskuan ikusten dogula esan geinke.

Hitler doistafen buru autetsi ixan zanian, ludira gentzea ekafiko ebalako uetiaz autetsi ei-zan, eta gixaftiari yaokan eskubidia jaditxiko eutsalakuan.

Orain, baña, bere buruba goyan ikusten asi danian, afotu egin ixan ei-da. Eta nagosifasun ori, bere-beria dala uste e-'au, Goikua'gandik ez efijagandik etofi bakua. Itz baten esateko, Hitler'ek, Jaungoikua da'a uste dau.

"El Liberal"

Oviedo'ko gudaketa gogofen izpafak dakafz lenengo ingoskijan.

Oviedo egun gitxi bafu efi-aldezliena ixango dala diño. Igazi dan igandian eta astelenien efi-aldezliak egin ixan dabezan auferakadak, aundi-samafak ixan ei-dira.

Beste aldekuak, adoregetuta dagozalako-edo, atzerantz egiten ei-dabe.

Efi-aldezlien oldaftu-erea, gogofa ei da ixan be, adoretsubenai be atzerantz eragiteko lakoxia.

Oviedo'ri oldaftuten ogei orduban iñardu ei-eben. Ogei orduko oldaftze a bide zala. Oviedo'rik geyena erkaldafen menpe geratu ei-zan.

Gudaketa gogof onek, bafiz, aufera ei-dafaitso, eta uri gustijaz jabetu afte -antxe jafatuko ei-dabe: oldaftuten.

"Euzkadi Roja"

Efi-aldezliak Asturias'en asi daben gudaufka ixugafijari elduta, gudaufketa areri gafantzirik - gafantzijena damotso

Oviedo ziñopatzat esten dau; eta uri ospetsu aren txaidietan gudatuten dabiltzan gudarijak, efi-azkatzaletzat.

Asturias'en itxaropen osua jafi ixan dabela diño. Oviedo, naizta bera irabazteko nekerik gafatzenak jasan biafa ixan, efi-aldezliena ixango dala esaten dau.

Gudaufka onen azkenian, Asturias paxiotaf gustijetatik azkatuta geratuko dala bayeztuten dau, azkenian.

"El Noticiero Bilbaino"

Gipuzko ta Araba'ko guda-oñetako izpafak dakafz.

Efi-aldezliak paxiotafen alderuntz egin ixan eben igeskada baten, gurafie gudofni arei kenduta ekafi ei-ebezan.

Eurak, be, Maltzaga-aldetik, onuzko igikunderen bat egin ei-eben. Baña alpefik, emenguak beriala uartu ixan eben, ba, ta beriala atzeruntz eragin be. Asturias'ko gurendeak bide dirala -edo. Euzkadi'ko euzko-oñetan be, guadaufkarako gurarije agirijan ikusten ei-da. Beste aldekuak, ostera, euren koldafkerija, ezin ostendu ei-dabe.

Efi-aldezlien izkilazkafak geruago ta gogofago oldaftuten ei-dabe. Eta egunoroko oldafketa oneik, paxiotafak kikilduta iminfen ei-dabez.

Gaurko eguneko bertsuak

Kurutzan aldez jazo zariela
Sifistu eragin nai'zue
Karlista, fascio, falangetafak
Aintziñeko piperpote
Jauntxo zitalak ta militafak
Generalote, komandante
Moro, aleman ta italiafak
Dirala etofi Eliza alde.

Elizan seme politak zuek
Aftu dozuez lagunak
Mussolini ta moroak, Hitler
Balta Action francais'ekuak
Marte ta Aristo, Alah ta Motze
Ba'dituzue aldekoak
Kurutz gudean asi zaitezen
Geituteko kristifiauak.

Bi, lau, sei, zortzi efeboluzino
Zenbat nok jakin, España'n Juan dan (gizaldian
Gertau ei-dira militar masol
Afoak agindu nayan
Amaika aberats orduan an ziran
Elizari lapufetan
Ta orain nai dabe diruak gorde
Elizaren izenean.

Amaika praile gixajo il zituen
España'n monarkikoak
Diruan ostu ta eurentzat aftu
Elizan eskubideak
Obispo ta apaiz kendu ta ipinten
Efegeak ta Ministroak
Bedeinka ta ontzat emon dagiezan
Egindako deungekeriak.

Bat egifik ikusten dogun
Lengo zurjak baltzekaz
Erlejiño ta foruak gora
Ibilirik atxakiaz
Euzkotafari odola ugari
Ta bake edefa kenduaz
Bifiñdu Euzkadi nai dabe orain
Karlistak saldukeriaz

Jaungoikuaren izen santua,
Ofetaraño aftu?
Lapuren lan eta okerkeriekaz
Eliza deuna olan nastu?
Euzkadi'n kontra guzuf gofoto
Jauretxean zabaldu.
Ta Elizan aldez zatozen esan?
Diabruak zaitue bialdu.

Aboan beti Erlejiñoa,
Eliza baña menpean,
Obispo, abade agindupean
Najtuta politikan.
Kristau bakartzat agertuteko
Ta erdal eskola bjurtzen Elizan
Dotriña, otoi ta sermoian.

Kurutza eskuan aftu dozu
Euzkadi'n kontra bizitzeko,
Joau ta lege zafal bafe-egin
Ta euzkera oitura galtzeko
Maizterfak jaurti etxetik e
Euzko langilia ondatzeko
Zuen guzurezko laguntza
Elizari kalte egin dautso.

Zeru bidea Elizak nai du
Mundu guztiari azaldu,
Euzkeraz baña euzkelduneri
Paxistak dautsoe ukatu.
Izkera guztiz jauna goratu
Jaungoiko berak nai ba'du,
Paxistak ez nai; nayago dut
Erdel biraoz iraindu.

Deabrua maizu gura dozu
Izkuntza garbian ordez;
Erdera jabe izan ta aizea
Bete liraoz ta zikifiez.
Jaungoikoari euzkel-otoya
Ez dozue aftu onez,
Kristau-dotriña euzkerazkoa
Izan ezkero laga ez.

Deabru maizutzat, mendi ta efiak
Odolez dira gofitzen,
Zaaf ta gasteak, efuki barik,
Moltzoka zabiltze iten.
Asetu ezifiik il dituzuenak
Eun mila askora dira eltzen:
Auf emakume, abaderi ezta
Ez dautsozue parkatzen.

Ken ortik otso odolzaleak,
Kurutza jantziz estalduak
Alde batera azal zurlok,
Agertu bafu ustelduak.
Agertu zuen jauntxukeria
Zuen agindu-gureak,
Ufe gose eta afokeria,
Guzuf ta galdukeriak.

BETARRI.

GUDA-ARGAZKIAK







Gudari idazkijak ABERRIJA EZAGUTU BIARRA

Ingoski onetan "Gudaketa bi" ixenpuru ebala afgitaldu neban idazlanan niñuan letz, izkiluzko gudaketa jokatzeko adoretsu softu zan euzko-gastedija Euzkadi aldeztuteko, guda-ifintzija entzun ebanerako. Au gustiz txalogafija danik ezin ukatu. Baña euzko-gogok gudaketan aldez ezebala jokatzen ain zintzo uaftu geban ta zergafik —itauntzen genduban— ¿zergatik ete da? Gastedijak ulertu ez ala gudaketa au bestia baño gatxagua ete?

Euzko-gogo aldezko ekintza gafantzitsubena da Aberija gaizkatzeko. Eta nire ustez, gastedija euzko-goguen aldez mendijetara baxen adoretsu ez softutien zijua, onen gafantzija ez ulertutia da.

Nik guda-lagun asko be asko ezagutzen dodaz. Geyenak benetako azafijak. Geure nagusien aginduba egunero adoretsu itxaroten dagozanak auferakada bat egiteko. Entzungo ba'zebez onein itzak! Zelan ez autoftu abeftzale zintzo zintzuak diranik?

Baña ara, ene irakufle; gabetan neure txabolan irakurten-edo nagonian, ta ixiltasun efdi efdijan neure entzumenera, guda esijan tinko dagozan gudarijako guzitako erdel eta atzeúitaú abetijak eltzen yatazanian gogo edo arimea ufatuten yat. Ain abeftzale danen gogua atzefikutsuz bet-a dago. ¡Au tamalgafija!

Ba'dago efderazko esakun bat diñona: "Begijak ikusi ezpa'dagije, bjotzak atsekaberik ez".

Eta auxe jazoten yake abeftzale askoei. Gogoko begijak itxubak daukez Abefijarentzat. Eztabe ikusten euzko-lufa baño, ta geure mendijetatik arerioak botateko egin beaf dabezan ilegin gustijak egiteko gefturik dagoz. Ostera, Abefi gogua eztabe ikusten: zinesmena, abenda, ele edestija, ekanduben gafantzija eztabe ikusten... Abefija eztabe ezagutzen!

Abefija mafatzeko ezagutu egin biaf da. Eta ezagutzeko bide egokijena edestija adiraldutia dala uste dot. Alan abenda berexi bat garala ta eletzat euzkerea dogula jakifik, geure ekandubak ezagutu ezkero benetako abeftzaliak diranak, afduratsu agiriko dira zifiismena ta abenda zaintzeko, euzkerea ta euzko-abestijak ikasi ta landuteko, bafa, geure ekandu edefak zabaltzeko bere.

Beraz, benetan txalogafija da geure jauparijak Aldekoa'taf Toma'k esku artian artu daun aflua. Idaztitegi bat irasi dau. Idazti oso politak eta abefkoyak ekafi dauskuz. Alegindu gatezan ba "Atzueta" gudaltsalako gudarifiok, ekaúten dauskubezan idazti gustijak irakufi ta adiraltzeko. Olan Abefija obeto ezagutu-ta ainbat geyago mafe ixango dogu.

OLABEAGATAFA.
("Atzueta" gudaltsalakua.)

Orretarako nai dabe Aulki ori?

Gustiok dakigunez, eskertaf Alderdi bat dabil aspaldion Euzkadi'ko Jaurlaritzan aulkitxo baten bila. Baña alegifiak-alegin aulki ori ondifio eztabe loftu gure lagunok. Katalunya'n lau daukezela, España'n beste lau emon eutsiezala ta Euzkadi'n bapez? Paxismoa azpiratzea bakafik ba'litz gure afloa, onezkero jafita egoan euretarik bat Euzkadi'ko Jaurlaritza Zaingoren baten; baña ofez gañera beste zerbait beaf emen Euzkadi'n Zaingo-aulkiren baten jafteko, eta zerbaitxu ori ondifio ez deuskue erakutsi gure mutilok. Euzko-enda-zaletasun apurtxo bat, abefi-azkatasun txingaftxo bat bederik erakutsi, ta laster zarie aulki-gañean exerita. Baña jakin al-leike zetarako nai dozuen aulkitxo ori? Katalunya'ko zuen alderdikideak egin dabena egiteko ete? Ofetarako izatekotan ezin guk emon Euzkadi Jaurlaritzan Zaingo-aulkirik. Gogoratu egizue guda baltz au zergaitik sortu zan. Eurek ekafi eta alikaturiko komunismoa zapalduteko zala atxakitzat jafirik abefi-azkatasun-sua nabaitzen zan efiak apuftu ta bifinduteko jagi ziran gure ta zuen etsayak, eta asmo baltz ori beteteko guda baltz madarikatu onetara beaftu ginduezan gustijok. Arpegian beei bi dituenak argi dakusken gauzea dan afen, Katalunya'ko C. N. T. ta F. A. I'tafaki itsutu edo egin dira, ta eztabe au ikusi. Lliga edo dalako alderdia, bein be izan da, ba, Katalunya'ren egizko alderdez? Zergajtik ordun egizko katalandafakin nastean jafi? Lligakoak irainduten dituelakoan egizko katalunyafak biotz-erdjan zauritu ditue. Katalunya katalandafentzat nai daben abeftzale zintzoei ein deutslen iraiñ eta zauria etxake beingoan aztu ta sendatuko. Eta Katalunya'ri egin yakon zaurijak geuri be min emoten dausku, Katalunya'ko ta gure auzija auzi bardiñak bajdira. Katalunya'ko C. N. T.'tafak min emon dauskue Euzkadi Jaungoikua'rentzat azkatu nairik bufukan diardugunoi. Paxismoa zapalduaz batera Katalunya katalunyafentzat eta Euzkadi Lagizafpian Jaunarentzat azkatu nairik gabiz. Ainbeste odol ixuri ondoren bafiro be mofoi jafi? Ez, mutilak, ezelan be ez. Azkatasuna ezta zuentzat bakafik izango, gu be bere bila gabiz aspaldion. Au gustiau aldeztuten ba'dozue, laster zarie Aulkitxo baten jaube Euzkadi'ko C. N. T.'tafok.

B.'AR BIN.

Kokotxak xaltxan

Gauzak garesti saltzen dituzten saleroteari, diru zigofak esartzen dabiltz, gure agintariak.

Zofotz ta sendo ibiltzeko bidia oixe, gogotasun guziak gutxi dira ontan, efu duena zigoftzeko.

Ontan badegu guziok, agintariari non lagundua. ¿Iñork beaf baño geigo ororaindu duela? Zalatu ta ¡zaz!, multa, befiketak utzi ta, berdin abeftzale ta abeftzale batzokia baldin bada ere.

Zer ba, ¿batzuk guda dala bitaftez dana galdu, ta besteak dana irabazi?

Irabazi balitz, tira, bide onian irabaztea ez da obena, baña begien aufian, nobera begira dagoala, oztutzia, ortarako dijuazela "Sierra Morena"ra.

¿Oztutzea itza gogofa dala? Ez nua bada ezertxore kentzea, ez da izki izpi bat ere, itz jatofa ori da ta.

* * *

"El Liberal"entzat ez da noski gudari euzkotafik Asturias'en, ez ditu aitatzen beintzat.

Nola aitatu euzko-gudarien lana España'n, idazten duana zereko "Cruz Salido" da-ta.

Euzko gudariak gaizki geratze afen, Asturias aldeko gudaketa ori galtzea nai izatia ere, ez nitzake batere afituko, ori esan duena jakingo banu, orlako maitasuna bait digu, ontan faxixtak ere orla oldozten dute.

Gauzak orla badijuaz, Cruz Salido de Tono ofek, igaroko beafko ditun tripa afabiyak ez dira nola naikuak izango, ta guriakin Euzkadi'n irtetzen ba gera, kliklilo ¡ofek emendik eman beaf duen ziyara! Egazkin azkafeenak baño azkafago, ¡ez dek orlako tximixtafik sortu!

* * *

"Batallón Perezagua" gora ta bera, ta bere gudariak goratuaz izpaf ugariaz datof atzoko "Euzkadi Roja" ere.

Ta orla egitia ez da afitzeko, beriak dira ta beriari laguntzia jatofizkoa da. Abeftzale gudariak dabiltza orain ere, ezer egin ez baluteke bezela, ez egin ez ¿utelako, egin dutena beaf bezela agertzen ez dalako baño.

Betiko leloa, ez diot, guk zer egin, alde guziari adieraziaz ibili beaf degula; ori beñere ez, baño kontuan egon, gauf Asturias'en gudari euzkotaf ta abeftzale asko daudelarik, aben sendikoak beren befi jakin naiak, ez "parte oficial"ek jartzen duten bakafik, baizik zerbait txeetasun berezi geigo, jakiteko naia, bidezkoa dala ezin ukatu, odoletik jaiotzen da ta.

Ain odolekoa ezik, ¡ez noski Asturias'en gora bera, bai an diran gure gudarien egoera oriVea!

* * *

Befiz ere arerio mendean dagon Gipuzkoa ortan, ifatiz emengo gauza ta egoeraren zabalkundea egiteko eskatzen ziran lengoan, andik faxixtak bialtako batek.

An emengo ifat otsa Punta Galea'koa noski ederki entzuten dala, o'tatik 10 batez ere, ta ifati ots ofentxen zai egoten diranak asko dira, gero orla jakindako befiak beretafari ta efian zabalduaz ¡ez dakizu zer nolako atsegiña guri emengo zerbait hide ottatik entzuten genunian!

Gure tafen abotsa euskera gipuzkoaf goxo onetan entzun ta ¡ua zerua!, etzenuteke xinixtuko zer nolako itxaropena, ta aurka egiteko zer indafa sortzon duen.

Au berak badakite, faxixtak alegia, entzuten baitue berak ere, orlako befi bat ematen danian, oien mutufa ikustekoa izaten da.

¿Ta bear beafez, gogo aurka, bere artean dituzten gudari abertzalearen bafengo poza? ¡Neuritu eziña!

Gipuzkoa'tik datorkigun eskari au betetzea ¿ofen zala ote da?

¿Ofen nai lafiz eskatutakoa? ¿Ukatuko ote diotegu?

ATAFENE.

'KIZKITZA" (G.B.)

"Kizkitza,,'ren (G. B.) idaz-lanak argitaratzeko, Donosti Buru Batzaf, asmoa beterik, zabaldu ta dagon arpidearen jafalpena.

Oraindafiokoa	655	]ko.
Lon Aba	5	"
Azkena	25	"
Nemesia de Olaizola	2	"
Andone de Olaizola	2	"
Iñake de Olaizola	2	"
Mirentxu de Olaizola	2	"
Maria Pilar de Olaizola	2	"
Gutxi baña biotzez	1	"
Bezte batek	1	"
Irakufle batek	1	"
Euzkotaf batek	1	"
Zaf batek	1	"
Guztiot	700	"

ATZERRIKO IZPARRAK

Paxistak Madrid illaren seirako menderatuten ezpa'dabe Hitler eta Mussolini kontrolaren aurka?

Inglaterra Europa'ko politika zuzendari.-Zauritu talderik iñork ikusi ez dagian paxistak zauri-etxeak uriburuetatik kanpora egingo ditue.-Tataresku eta Rusia.-Beste izparrak.

PORTUGAL LATEŔ-BATZA'TIK KANPORA?

Ginebra.—Kontrol arazuetarako batzorde bat izentetan Ingelateŕa'k Portugal'eri laketu ez ba-daikio, Portugal Lateŕi Batza'tik atarako dan zuŕumuŕua dogu politikuen aŕtean. Batzorde oŕi sortu ostean batzordearentzat Ingelateŕa'ren laguntza nai dabe.

HITLER ETA MUSSOLINI ZIRIKALARI

Ginebra.—Lateŕi-Batza'tik Portugal ataraten ba'da, kontrol asmoak alpeŕik galdu dagizan izango da. Portugal'eri burukide ori Hitler'ek eta Mussolini'k sortu dautsoe ta datoŕen ilaren seigaŕenerako Madrid paxistak menderatu ezin al ba-daike, lagundu dagiuen egiten dabe ori.

ZUŔAK DIRA, BAÑA...

Ginebra.—Kontrol'esi osoa datoŕen ilaren seiraŕte atzeratzea, be, orixe dala-ta nai izan dabe paxista-Lateŕiok. Zuŕak doguz izan be, oŕeik. Paxisten azp-okerok ez eragoztea txaŕto egin dau Ingelateŕa'k.

INGLATEŔA'REN ERABAGI EZIÑAK MESEDE

Ginebra.—Nora-ez'ara ibili yaku Ingelateŕa ta Ingelateŕa'ren erabagirik ezak mesede aundia egin dautsoe paxistai.

BOLSEAK BERA

Ginebra.—Blum'en Gobernuak kontrol-esiok ipinten ez ba ziran gudaloro bi España'ra bialduko euzala esan ebanean, Bolsa'ko gora beretan alde aundia izan zan; amaŕ osoz beratu ziran Bolsa ogasunak. Oŕek Prantzia'ko agintari nagusiak Ingelateŕa'ko nora ez ara jokereakin daben zerikusia darakusgu.

EŔIAREN OTSEI JARAMON EGIN BIAŔ YAKE

Ginebra.—Prantzia'ko eŕiak España'ko erkaldaŕei lagundu dagiola eskatzen dautso Gobernua'ri, Prantzia'ko goraberak España'kuekin zerikusi aundia dabela ta. Oraingo onetan Gobernua'k, be, eŕiaren gaŕasiak ez entzunik ezin egin izan dau. Oraiñaŕteko koldaŕkeriak Aldundia'n jausi-agiñean itxi dabe Gobernuoi.

BLUM'EN ITZALDIA

Ginebra.—Igandez itzaldi bat egin eban Blum'ek eta itzaldi oŕetan euren jokerearen baŕi emon eban. Lengo bideei jaŕatzeko asmoa eukela esan eban. Lengo bideok zein aututan jaŕaituko euzanik esan ez ebanaŕen. España'ko auziaŕi buruz esan naj izango eban, ausago.

Bide oŕeitatik jaŕaitu ba daike, lasteŕ ikusiko dau zer gertatuko yakon. Galbidez duana galbideak ondatuko dau. Bide oŕetatik jaŕaituta, España'ko ta kanpuetako paxisten asmuej putz-egin, besterik ez dau egiten. Lasto aŕtean dagon txinpartari putz dagionak lastoak sutu egiten dauz ta eŕe.

ZAURITU TALDERIK IÑORK IKUSI EZ DAGIAN PAXISTAK ZAURI-ETXEAK URIBURUETATIK-AT EGINGO DABEZ

Madrid.—Alemania'k igoŕi eutsezan zauritu-erabilkiñak dan-danak atara beaŕa izan dabe paxistok zaurituak jasoteko ta zauri etxeetara eruan egiezan.

Zauritu-etxeok uri aundietan ez dabez egin, zauritu talde aundiak iñork ikusi ez egiazan.

1.000 italiaŕ gudari Cadiz'eratu dirala diñue. Oŕeik guda-oiñetara eruateko bultzi ta belbilak uŕi baiña. La Marañosa'n laŕi doguz esi-baŕuan dagozan paxistok.

ORDJONIKIDSE'REN ERIOTZEAZ

Mosku.—Ordjonikidse il dala-ta, tamalezko idazlanak argitaldu dabez. Idazki askoko aŕtu dira onetzaz.

France'ko egunkariak be artikulu ugariak dakaŕezela diño "Pravda" izpaŕingiak. Karta, uŕutidatz eta itzaldi ugariak eriotza oŕen atsekabea azaldu daroe.

"CAMBRIA" EGAZKIÑA

Londres.—Ingalandaŕ egazkiñ taldeko "Cambria" izeneko bat, ogei tonelakadadun lauretako bat bederatzi ordu inguruan Gran Bretaña gaiñean ibili zan eta, aize-uŕaka, 1.350 mila egin. Egakada edeŕa, egokia ta ezertxoren akatsik gabekoa erabili zuan eta pozez dira peŕituak. "Cambria" ta "Caledonia" laister Atlantico-zear igaroteko dira ta oraingoa saioa baiño ez da izan.

INGELATEŔA'N POZIK

Londres.—Gobernukoak eta beste agintariak be, pozik doguz kanpotaŕ gudariak España'ratutea galerazo dala-ta.

TATARESKU ETA EŔUSIA

Bukarest.—Tataresku eŕumanitaŕ jaurlaritza buruak oturuntza bat eskeñi dautsa Rusia'ko ministru Oslorow'ri.

Oturuntza ortan eŕumanitaŕ ministru batzuk eta atzeŕitaŕ ordezkari talde bat izan ziran.

PORTUGAL INGLATEŔA'REN OTSEIN

Paris.—Ingelateŕa'ren aolkuei jaramon egin dautse Portugal'ek eta España'n paxisten aŕtean dagozan portugaldaŕak atzera Portugal'eratutea erabagi dau.

BESTE ASMOAK ERABILI DITUE, BAÑA...

Paris.—Hitler'ek eta Mussolini'k beste asmo batzuk izan dabez baiña orain kanpotiko gudariak España'tik atarateko gertu dagozala diñoe.

INGELESAK MAŔ-MAŔEAN

Paris.—Gudariak eta guda-izkiluak España'ratzea galerazoteko azkenengo astean Lateŕia'k aŕtu dabezan asmuej buruz jardun asko dogu Ingelateŕa'ko izpaŕingietan.

ILABETE BAŔU BIURTU DAITEZALA

Paris.—Portugal'ko Gobernua'k paxisten "alde gudatzen dagozan portugaldaŕak ilebeteren buruan Portugal'eratu daitezala agindu dau.

ARABAKIÑAK IPINTEN

Paris.—Kontrol-esia zaintzeko aŕtu dabezan erabagiei Portugal'ek erabagiok astertu ondoren, arabakiñak ipinten dautsez.

LASTEŔ ATONDUKO DIRA

Paris.—Portugal'go Gobernua'k bere egiune ta eskeñiak zeiñen zuzen betetan dauzan adierazo dautso Ingelateŕa'ko ordezkari Lisboa'n danari. Lord Plymouth'ek atzo gabaz Portugal'ek kontrol esiak jarteko ipiñi dauzan eragozpenak, lasteŕ atonduko zirala esan eban.

LORTUKO ETE DAU?

Paris.—Kontrol-esioi jartea Ingelateŕa'ko Gobernua'ren asmoei ta alegiñei yagokue zoŕ. Alemania'ko ta Italia'ko agintari buruekin aŕtuemonetan ibili ondoren. Alemania ta Italia bake-zale biurtu dauz kortizu, ta curon gudariak España'tik atarateа, be, lortuko ete dan zaratea dogu.

AMAIBIDEAN JAŔIKO DA

Paris.—Ilaren seigaŕena orduko itxaso-zaintza ta guda-tresnak Portugal-mugak zeaŕ igortea, be, galerazoteko beaŕ bideak egingo dira. Kontrol esiok guda edo geŕa ikaragaŕi, au asko big-induko dabe ta amaibidean jaŕiko dabe auzioi.



"Normandie" paŕantzeraŕ ixoŕtzi ikusgaŕia. Ludiko aundiñetaikua da. "Queen Mary,,'ren uŕengua.

UTS EGIN DAUTSE

Lengo astean Madrid'en sartzeko ustea eben

Lengo astean Madrid'en saŕtuko ziran uste osoa euki eben paxistok. Lengo astelenean 1937'gngo. gudalgaiteta zala ta egin diran ikuŕin ziñak ospatu ziran uriburu askotan. Egun oŕetantxe (otsala'ren 15'gn.) Avila'n Mola'ren etxean batzaŕa egin eben gudalburuok; batzaŕ oŕetan Franco, Saliquet Madrid'go gudaroste burua, Gil Yuste Guda Idazkaritza'ko nagusia ta Moscardo Soria'ko Guda Saileko agintari burua izan ziran.

Batzaŕean Madrid menperatzeko ekiñaldi berezia egiteko asmoa aŕtu zan ausago.

Erabagi oŕen argibide dala dirudi paxistok uri nagusiei egin eutsen jaki, jantzi ta tresna eskabidea. Jaki, jantzi ta tresnok beaŕeko izango zirala Madrid aŕtu egienean-eta. Sukaldeko tresna asko eurengandu ebezan paxistok Madrid'en palta egingo eutsela".

Franco'k Madrid noz menderatuko zain egozanak asko adorekatu ta ejeldu dira azkenengo poŕot oŕi dala-ta.



Zalduondo'ko jauregiaren ikuspegi ed eŕa.

Andik eta emendik

Viena'n nazitarrak zarataka.-Illeta ospetsuak Moscou'n. - España'n dagozan italiarrak. Washington'en eun-urteurrena.-Nazitarrak Inglaterra'n. - Beste izparrak.

ILETA OSPETSUAK MOSCU'N

Moscu. — Ostrokovich'en aintzazko iletak ospatu dira. Ildakuaren gorputza Stalin, Molotov, Borochilov eta Trokonovich'ek atara eben lepoan.

Ostetza andia batu zan.

Plaza goŕian, Lenin'en il-aŕiaren auŕean, beŕeun mila langile ibili ziran eta gudorosteko ugari.

Ileta ondoren itzaldiak esan ziran.

SUECIAÑAK ESPAÑA'RI LAGUNTZEN

Stokolmo.—España'ri laguntzarako Komiteak dei bat gein dautse alkartasun gustiei lan sariaren ordu bat emon dagien.

Gotemburgo'n bakaŕik, beŕogei mila korona baño geyago emon dira, jantzi ta janarietan emon dana kontau barik.

ESPAÑA'N DAGOZAN ITALIAÑAK

Paris.—Jakin danez España'n dabiltzal italiaŕ guďariak beŕogetamaŕ mila dira.

WASHINGTON'EN EUN-URTEUŔENA

Nueva Rork.—Abeŕi gustian jai andiak egin dira Washington'daŕ Gorka'ren eun-urteuŕena ospatuteko.

NAZITAÑAK INGLATEŔA'N

Londres.—Inglateŕa'n nazitaŕen zabalkundeak geroago indaŕ andiago dau.

Goering eŕegien koronaziñora Jualia egoki litxakela diñoe orain.

Alemani'k politika bat agertu ta bestera jokatzen dau.

Bakea nai dabela diño, baña egiñenak besterik diñoe. Begira bestela España ta Viena'n egin dabenari.

Beste aldetik esku-gayak aukeratu biaŕ dirala diño ta Lateŕi Batza'tik kanpora dabil, esku gayok neuŕiz banatzea galerazoaz.

GALDERAKA

Londres.—Lotazila'ko 4'gnez. Inglateŕa'k Italia ta Alemania'ri egindako galderaren beŕi galdetu zion langile-aldeko aldun batek Camborn jaunari. Lanari beaŕ dan areta guztiaz lotuko zala, eranzun zion Camborn jaunak, baiña, azalpenak egiteko sasoirik egokiena ez zala.

NASTEA TA MATAZA

Viena.—Von Neurath atzeŕi-arazoetako ministruaren etoŕeraz sortu zan naspiļak oraindik ere badirau.

Gobernuko jauregi-etxeko zelaitik aldran atera zan ostetza, kaleak-kale, "Hitler goraka" asi zan. Abeŕtzaleak ere, ez zeuden lo-ta, "gora Austria,,'ka atera ziran. Eztabaida ta naspila sortu zan eta tiro-otsa ugari. Uriko akeitetxerik geienak itxi egin zituzten. Ertzaiñak lan aundia izan zuten eta beŕeun baiño geiago atxiloţu zituzten.

Ongi etorriak

Egun auetan aldra aundiak
Azaltzen dira gugana
Au egiñikan ez dute iñor
Biurtutzen berengana;
Eŕi gogoa irabazteko
Ez izan ori, onena
Len beren alde zeudenak orain
Arkitzen dira oŕeŕena
Zitalkeririk egin badute.
Au bai dala, bat txaŕena.

Euzkadi zaŕa zanpatu nairik
Kutsu guziak kenduaz
Bai izkuntza ta, oituŕa onak
An dabiltz aŕunt galduaz;
Naiz alegintzen badira ere
Zigortu ta jipoituaz
Ele zar onek, nunaitik dear
Egiñik buru jasoaz
Danen gañetik azalduko da
Garaile beti munduan.

Uri ta etxe, utsunez dira
Arkitzen eŕi askotan
Bertako seme anker batzuek
Ekin diote oŕetan;
Zenbat amatxo, beren semeak
Dituztela besoetan
Urbildu dira Bizkai aldera
Estuasun ta neketan
Maitasunezko aferarekin
Artuko ditugo benetan

Senaŕak alde egin ondoren
Zenbat emaztetxo laŕi
Gelditu ziran, negar ta negar
Begiratuaz alkaŕi;
Maite miñezko zotin gaŕatzak
Beti zeuden, txit egaŕi
Kezkaz beterik bizi eziñik
Egiñikan eŕukaŕi
Beren senaŕen aldemenean
Gaur dirade zoragaŕi

Anai aŕeba kutun kutunak
Zatozte gure artera
Igarotako une aztunak
Emen oso aztutzera;
Jipoitu aŕen, sendo zerate
Gorderikan lengo eŕa
Kutsu guziak naiz ezkutatu
Gu beti euzkaldun geŕa
Ongi etoŕi gipuzkoaŕak
Senide maite artera.

Seme alaba txiki maiteak
Bertan laga ta aldendu
Oŕetarako lanean, aita
Egin alda, alegindu?
Puxka bereak utzi beaŕak
Biotza dio samindu
Noiz batuko dan sendiarekin
Burutik ezin du kendu
Aldi onetan bere oiekin
Pozik asko, bat egindu.

Laztan gozo bat eman ondoren
Aldendu giñan etxetik
Gauza geiago ekaŕi nai ta
Ez gendun ez denborarik
Izkiluz danok inguratu ta
Giñuzten jaŕi aurretik
Kontuz ibili, ta ez esateko
Aien arteko beŕirik
Zenbat oriako entzunak dira
Gixitxar oien aotik.

Oso aŕitu ta arkitu dira
Andik etoŕi diranak
Xinistatzeak eman dizkate
Buru auste ta bai lanak;
Esan zizkaten gauz guzi aiek
Gaur ikusiriкan danak
Etzegoelako bizi izateŕik
Geundelako oso janak.
Zuen mokaru ta zuŕut bila
Ez gera jungo ez jaunak.

OTARTXO.

Euzkadi'ko baster polita



Zurbaran lauregia.

IKURRIN ONESPENIAN

Alemanak eta italiarrak nagusi

Donostia'n astelen zortzi

Donostia'n liaren 15'gn. egin zan ikuñin ziñak argi ta garbi darakusgu alemandaŕak eta italiaŕak paxisten alde zeiñen nabarmen jokatu daben.

Oŕen ospe ta entzute aundiz egin daben jai oŕetan Burgos'ko Guda-Batza'ko Alemandaŕen Ordezkari Fauppel, be, izan zan. Fauppel'en ondoan sail onetako gudalburu dan Lopez Pinto egon zan. Urtenenetariko lekuan egon zan atzeŕietan italiaŕ paxismoaren zuzendari dan Basile ta italiaŕ, alemandaŕ ta portugaldaŕ asko izan ziran jai oŕetan, Lateŕi oŕeitako konsulak, be, bai.

Lopez Pinto'k eta Fauppel'ek itz egin eben eta España'ri baiño Alemania, Italia ta Portugal'eri gora gelako egin eutsen.

Atzeŕi jaia zan a izan, be; ez abeŕi eguna.

Zurikerietan jatoŕak doguz paxistok: Ondo agertu nai ta zurikeriz aŕera aundia egin eutsen Alemania'ko Ordezkariari Gipuzkoa'ratu zanean; italiaŕ paxistakeriaren eraltzale España'n danak bazkaria eskiñi eutsonean gizon ospetsu taldea izan zan bazkaŕi oŕetan; Goikoetxea'taŕ Andoni'k, be, itzaldi bat egin dau Alemania ta Italia igurtziaz ta goratuaz ta Fauppel jaun eta jaubeak zoriónak emon eutsozan. ¡Ori bai ba-daia ederkeri utsez umen-antzo jauntxuok ibiltea!

Donostia'ko izpaŕingiok egin dabez alegiñok jai ta itzaldiok goratuten; alemandaŕ, italiaŕ ta portugaltaŕok igurtsiten ta oŕei edarkeriak egiten.

"News Chronicle" jardunean

Adizkide miñak oztutzen?-Asaldatzeko arrizkua.-Franco eta francotarrak atxilotzen dituzten guzia erailten dituzte. Alemanen bonbak izan ezik, ez dute lerrik egiten.

ADIZKIDE-MIÑAK OZTUTZEN?

Il ontako amaikagaŕenez, amalaugaŕen oŕialdean, "El News Chronicle" ingalandaŕ izpaŕingiak lord Marley'k izenpetutako idazlan bat argitaratu zuan. España'ko lateŕira begira idatzitakoa da ta lord Marley'k, beste gauza askoren gaiñera auxe esaten du:

"Asaldariak (paxistaŕak) zabalkundea-zabalkunde jaŕdun aŕen, eurengatako adizkide-miñak oztutzen asi ote diran susmatu degu. Frantzek, laguntzeaŕen ainbat eskeiñi egin dizkie Alemania ta Italia'ri.. Alemania'k eta Italia'k irabaziko balute, esan bearik ez, España'n, lan-arazoan eurak litzakez nagusi. Bai españaŕen Mañuekoetako luŕalde. Portugal eta onen kolonietan ere.

ASALDATZEKO AŔIXKUA

Alemaniaŕak españaŕ luŕaldeak eta portugaldaŕ koloniak asaldatzeko aŕixkua dago gaiñera. Egiñenok aberţzale guziaj oldozmena zoŕoztu ta auzia bi bideŕ azteŕtu eragin beaŕ lekie.

Erkaldaŕak egindakoak dirala - ta, baŕabaskeri nabermenenak esaten dituzte Gibraltar'en. Egia esan, taŕtetan egiak esaten ez diranik ez diogu. Baiña, bat edo beste egin dutela-ta, dana aundi ta dana gaizki etzitzea ez da bidezko. Erkaldaŕak agiñak garbitzeko treznatxoa begietan saŕtzen diela apalzai, eta lejotan ondaŕ-zoŕo antzo jositz uzten dituztela umetxoak, ori geiegi esatea da ta egiarekin ezkontzen ez dana.

Franco'k eta Francotaŕak bai, atxilotzen dituzten guztiak erailtzen dituzte, basatikeriak egiten dituztenak il egin beaŕ dirala-ta. Franco'taŕak, atxilotuetakotatik, batzu-batzuei baiño ez diete bizirik uzten. Orixe da egia, argia ta garbia.

Joan zan astez, Lisboa'n izan nintzan. Argi ta garbi ikusi nuan ango eŕitaŕak zer nai duten. Salazar Gobernu nazitar eta francotaŕaren aufka danak batera jaiki.

Matxinada onek eta Portugal'ek Inglateŕa'rekin lenago zuan aŕtuemanera joteak, laisteŕ austuko lituzke Franco'ren ametz eta españaŕ laterian gudatea irabaztea.

GOBERNU-ALDEKOAK

Lateŕiotako agintari - ordezkariak, gaiñera, itxuraz, ez dakite españaŕ lateŕiko Gobernuak eta Tanger'en dagon españaŕ konsulak dituzten adizkide-miñak.

Areto aundienean egindako itzaldi batera erdu nintzan. Frantze ta España-aldez eratutakoa zan itzaldia eta españaŕ Gobernu-aldekoak miiaka ikusi nituan.

Tanger eta Gibraltar'eko txaideak -zeaŕ, lagunik-lagun, zeintzu izpaŕingi erosten dituzten, zeintzu abesti abestu, zelako aguŕak zuzendu oaŕtzeari ematen dionak, laisteŕ ikusiko du españaŕ Gobernuak zenbat aldezle dituan eta euren abeŕitik-at bizi diran españaŕ geienak erkaldaŕ Gobernuaren aldekoak dirala.

Mañuekoetako españaŕ luŕaldeak Franco'taŕ eta alemaniaŕak zaintzen dituzte. Tanger'eko uŕutizkin - etxea zaintzen duten Franco'taŕen joan-etoŕi-agiri gabe, ez dute atzeŕitaŕak ara sartzerik.

Mañuekoetan alemaniaŕak zabalkundea-zabalkunde diardute.

ONDORENAK

Gaŕantzi aundikoa da zabalkunde ori Inglateŕarentzat. Ba-litzake India ta Sortaldeko ainbat mahometaŕ miloe ta Palestina'ko gaufko naspiiarentzat ziztagaŕi izatea zabalkunde ori.

Egia da, Palestina'n dauden ingalandaŕ lateŕi-moŕojak ez dakuste arixku ori.

Malaga ziaro aŕtu baiño len, antxe izan nintzan. An nagola, egun batez, egazkiñak suagaka asi ziran. Eŕikoak bare ta burutsu aŕtu zuten babes-leku edo refugiotarako bidea eta berealako batez kalea goŕjrik gelditu zan. Guzti ori ni-neu Gobernu'ko babes -etxera saŕtu baiño len oaŕtu nuan. Ementxe amaitu nuan erkiko jaurlariarekin nere jarduneldia.

Egazkiñak jaurtitako bonbak ez zuten kalterik egin. "Alemania'n egindako bonbak izan ezik", ez dute lerik egiten.

Bakezaleak

ALKARTU egingo dira

ABISINIA'N ETA MANTXURIA'N JAZO DANIK JAZO EZ DAITEN

Bakezale diran Lateŕi batzuk alkaŕtu egingo dira España'n eŕkaldaŕak ondatu ez dagiezan. Lateŕi oŕein aŕtean Mexico, Lateŕi-Batuak eta beste amerikaŕ Lateŕi batzuk doguz.

Egiztau da

Varela zaurituta dago

Villanueva del Pardillo'n zauritua izan ei-zan Varela paxisten gudalburua. Izpaŕoi egiztauta dago.

Bermeo

ANTZEŔKIJA.—Bizkoŕ ta sutsu dabiltzaz gertauten "Itxaŕkundia" eta emko neska-mutil trebiak antzez-lan politak diran "Iru gudari" eta "Nast-Boraste". Bitsa galdu barik arin ibili.

ETXE ATSEDENA.—Irurogei ta iru egun Ubidea eta Otxandiano'ko guda-oñian igaro ondoren Bermeo'ratu dira "Arizti-muño" gudaloroko mutil azkaŕak. Ongi etoŕi.

Baita "Martiartu"ko "teniente" dan Ateintza'taŕ Jon be emetik ikusi dogu.

ITXASOTIK.—Bexigu ta papardo apuŕ batek burua agertu dau "eskote" deritxon gpuzkoaŕ kalatan. Oba.

ZAURITEGIJA.—Bermeo'n ere gexotegi edeŕ bat dago atonduten gudari zaurituentzako. Garaya da.

IZPAŔ BALTZA.—Astelenez ilobiratu dabe Gometza eta Unda'taŕ Miren Mikele, Urengoetxea'taŕ Seberin'en alarguna, eta Euzko-Gastedi ta Euzko-Langiletako idazkari argijaren ama.

Azken tokiraŕte ostetza andijak laguntu eutson soin oneri. Aŕtu egik ene adizkide maite oŕek eta ire anai Timota'k ere nere tamal aguŕik zintzo ta anaikoŕena.

Irakuŕle otoi apal bat igez egin deuskubenaren gogo alde.

Urkidi

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Bildots - aragia emongo yako erriari. - Bularretiko gaitza aberien artian Elorrio'n.-Shangai'tik telegrama bat bialdu dautse lendakari jaunari zorionak emoten.-Beste gayak

OSASUN ZAINGUA

Gexoen janari bereziak

Gexoei janari bereziak emoteko oraĩarte agiriak ordaindu beaŕa izan da, baŕan lasteŕ, zertifikado diralako oŕeik dubena emongo dira.

Lendagintza Etxe bat ipiñiko da, sendagile ta laguntzalez orniduta, eta janari berezia beaŕ dauana etxe ortara joango da, bertan ikusi dagien premiña oŕen baŕi. Eta antxe emongo dautse agiria, zer janari beaŕ dauan adiraziaz. Agiri oŕen bidez erosi al izango ditu gayak.

Oean gexo dagokezanak, bakoltzaren sendagileak egindako agiriak izango ditue.

Oŕez ganera sendagile sail bat ibiliko da etxez etxe, agiri oŕeik egiazko diran ala ez aztertuteko. Uts dagienak zigoŕa izango dabe.

Langintza zaingoan

Itxasoratzeko landolea

Langintza Zuzendari Nagusia Santines jaunak Zaingo'ko oaŕ auxe emon euskun:

"Euzkadi'ko Gobernu'ko Lan Auŕerabegiramen eta Eraman ekaŕi Zaingo'ko Burukidearen aginduz (1937'gn. urtaŕila'ko 15'gngo. oroaginduz sortu zan Itxasoratzeko Landola'ko Arautegi'ko 18'gn. atalkia beteerazoteko, Itxas-ibilte Batzei da Euzkadi'ko ontzi zenbaketetan dagozan itxasontzi Batzei ta España'ketan edo kanpokoetan dagozan itxasontziak izanaŕen Euzkadi'ko portuetan izaten diranei auxe jakiñarazoten dautsoegu: itxasontzi oŕeitako ontzi-buru ta ontzi agintariak txartel-bikotzdun txartel idaztiak euki beaŕa dabe ta itxasontzikoren bat luŕeratzen danean oŕetariko txartel bat emongo yakoe, ta txarteloi Itxasoratzeko Landolea'ra erakaŕi beaŕa dabe luŕeratzeko artu dabenak eurak ta txartel oneik Lan Zuzendaritza Nagusia'n (Itxaso Gizarte-Ekaritza Sailean) emongo yakoez.

Gintza zaingoa

Aŕantzu arloak

Aŕantzu'ko zuzendari nagusiaz izketan jaŕdun genduan atzo.

Aŕantzua salketaz izan diran naspilakaz zuzendaritza onek ez dauala zer ikusik, iñoan. Itxas-ertzean dabe euren zeregiña, ta aŕantzaliei saneuŕia ezaŕten dautse. Gerokoak, aŕaña salduteak eta jendearentzako eros neuŕiak eta, ez dira onen arazu.

Udalak eta Zaingo dagokienak egin beaŕ dabena da salduta saneuŕien gorabera ori.

Astelenean, 135.000 kilo aŕain ekaŕi ebezan uri onetara. Atzo, osteŕa, gitxiago, guztientzako lain ez. Guda-oñetara ogei mila kilo bialduten ditue egunero, eta beste leku geyagotara be, egunero emon beaŕ izaten da.

Gizarte-Laguntza

Paxistak bialitakoentzat etxeak

Zaingo onek dituan lanbide astunen artean, beste bat bere atonduta utzi dabe.

Gipuzkoa'tik oraintsu bialdu dituezan sendi guztientzat bere, etxeak eta babeslekuak idoro yakez. Beaŕeko dabenik ezertxu bere ez yake palta.

Emokunak

Astelenean artu ziran emokunen eŕeskadeak 2.055,40 pesetara jo dau.

Lendakaritzan

Shangai'tik uŕutidazkia

Shangai'tik bialdutako uŕutidazkia artu da, lendakariak igaziriko lotazila'ren 22'gn egin eban itzaldia dala-ta, zorion-aguŕa emonaz.

Onetzaz, itzaldi ori ingeles eta prantzesera itzuli izan da, eta ingurtia egiñik Frantze ta Inglateŕa'n ugari baŕeiatu dabe.

Igesi

Elgeta'ra paxisten igezi eldutako soldau baten izpaŕa emon euskuen.

Asturias'ko izpaŕak

Alde artatik baŕi onak dirala esan euskuen Zaingo onetan. Eizako egazkiñak paxisten bat eratsi eben.

Madriď'eko euzko gudariak

Alde artan diarduen euzko guda-salei zorion-aguŕa bialdu dautse Agiŕe jaunak.

Batzaŕik

Aste onetan, oi dan batzaŕik ez dakie izango ba'da. Lau burukide erbestean dira, eta beste bat gexorik dago -ta.

SALEROSKETA TA ORNIKETA

Eibaŕ'ko ... gayak

Eibar'ko indus... gizonak izan zi-'an atzo Zaingoan, egindako ainb.t gai euren tegietan alpeŕik daukazala -ta. Zizpa-izkiļu motz, txiŕinguts, akeit -tresna eta abaŕ, ugari ditue geldi, eta gayak ainbat lekutan saldu leitekezanak dira.

Zaingo onetan, Eibar'ko ondezkaritzaren bat ezartea izan leitekela, esan euskuen.

Oŕela, gai oŕek egin eta erbestera bialiteko eŕeztasun eta bide-egile izango litzake Batzorde ori.

Bildots aragia

Okela eroste-banaketa batzordea batu zan, bildots-aragiaren banaketea nola egin antolatuteko.

Larunbata goizean asiko dira banakela egiten. Eŕietatik asiko dira, meatz eta ola eŕi aldean lenengo.

Muskez, Abanto ta Zierbana, Ortuela, San Salvador del Valle, eta Arboleda'n, meatzegi aldekoak. Santurtze, Portugalete, Sestao eta Barakaldo, ola uriak.

Guztientzat lain izango ezpa'litz, uŕengo artean bananduko da. Bakoitzari 250 gramo okela.

Beste eŕietan, uŕengorik uŕengo egingo dogu banaketa, eta auretiaz adiraziaz.

Iñork, ostera, ezin daike bere kabuz bildotsik il, zigortua izango da-ta. Guztientzat banaketea egin gura ba' da, Zaingo oneri dagokio ori egitea.

Ez dago balerik

"Vale" bila oraingoan be, baŕiren baŕi datorkiguz, len galerazi genduan aŕen. Eskari oŕeikaz datorkiguzanen izenak argitaldu egingo doguz guztien lotsarirako geyago onera azaldu ba' daitez.

NEKAZARITZA

Abere izurteaz

Abeŕien gexo izuŕiteazko araudiak diñonez, Eloŕio uri baŕutian abelgoŕien bulaŕetiko gaitza dagola aldaŕikatu dogu, zertzelada oneitan.

Gexo ala gexo susmo dauan abelgoŕi, uri-baŕutia: Eloŕio.

Gexoz jotako aldea: Agiŕe'taŕ Andone anderearen basetxe, korta ta alapideak.

Gexo usañeko aldea: San Agustin auzunea.

Ageŕaldiak

Uŕutikoetxea'taŕ Pantzeska, Urtiaga'taŕ Kepa, Ituŕioz jauna, Zamudio'ko alkargo-batzordea, Gueñes'ko alkatea, Aŕasate'koa, Astigaŕaga'taŕ Imanol, Concha-meatzokikoak, Bilbao'ko Lugin batzakoak, Barakaldo'ko Ornitegi batzordea, Hierro'ren alarguna, El Progreso alkartasuna, Muskez'koa.

Erri-lan zaingoan

Agindua

Igazko lotaziļaren 28'gaŕenez emana eta 30 gaŕeneko Egunerokoan argitaldu izan zan Aginduak, Zaingo onek emanda zeuzkan baimena deuseztu egin zituan: burnibidez eta tximist-gurdietan duarik ibili al izateko baimenak alegia. Baño zenbait eginkizun berezi beteaz joan-etoŕian ibili beaŕ izaten diran Agintaritzaren eragileren jardunkizunak nagitu egin genituan.

Neuŕi ark, Baliatze Goi-Batzordearen kutxa barobiltzea izan zuan elburutzat. Ortaz, aldeaufez ordaindutako baimenak emango balira, ez litzaioke noski elburuari kalterik egingo. Eta Agintaritzaren eragileak ez lukete aitatu degun oztopozorik izango.

Ordaindutako baimenaren eskean etzaizkigu noski Agintaritza Bazkun guziak eta dituzten lanari guzien izenean etoŕiko. Ezta Euzkadi guzia zear ibilbide guizetan ibili al izateko eskatuaz. Zaingo onek erabakiko du bidezkoa dana, eskaera, aztertuaz, eta dagozkion zer-nolak ikusiaz.

Auxe dala-ta, ona Eŕi-lanak Burukideak zer agintzen duan:

1'go. atala. Euzkadi'ko Jaurlaritzaren Bazkunen eragile eta lanariak burnibidez, tximist-gurdietan eta berebiltzaŕetan ibili al izan ditezen, aldeaufez ordaindu bearko diran baimenak sortu-erazten dira.

2'gn. atala. Baimen beaŕean arkitzen diran Bazkunak, eskatu bitzate beaŕ aña txartel, zer-nola abek adieraziaz: txartel izendunak edo edonorendakoak nai dituzten, zein muetakoak, non nola eta nora joan-etoŕtzeko; eta zein aldirako. Oaŕ oŕatik, ilabeterakoak izango dirala txarteletik txikienak; eta Euzkadi guzia zear nonai ibili al iztaekoak eta joan-etoŕi eta gurdi jakiñetan ibili al izatekoak izango dirala baimenak.

3'gn. atala. Txartelen saneuŕiak, lengo atalean adierazi diran xeetasunei begira eta Zaingo onetako Eraman-ekatze Zuzendaritza Nagusiak jaŕiko dituan oñaŕiak beteaz erabakiko dira.

4'gn. atala. Txartel oiei buruzko itunbenak egiteko eskubidez jantzirik arkitzen da Eramanekartze Zuzendaritza Nagusia.

Erri-zaintza

Epaikaritza'ra

Bermeo'ko igesketeakiko auzi-idazkiak eta atxilotuak Zaingo onen ardurapetik Epaikaritza'ra bialdu dituela, esan euskun Orueta jaunak.

Beste izpaŕik ez euskun azaldu.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK
GORBEA Y C.ª
41'gn. Alameda de San Mamés txaidian
11447 Ufutizkiña

Eibar'ko mendi gai n baten aurkitzen da Aŕate'ko bas teŕ zoŕagaŕi au.

Au, ori ta bestea

Japon'ek Txina'n darabillazan asmoak eztira errusitarren begiko

Itxas-esia.-Belbil-erakusketa barria.-Alemanen eta poloniarren salerosketa artu - emonak urte birako luzatu ditue. - Jayotzak gitxitzearen aurka. - Beste izparrak.

ERUSITAREN ERESTALDIA

Paris. — Ila onen 20'gnz. erusitar ereskizuna izan zan, ango ordezkari Potenkin eta prantzetar efiketalari aldra bat bertara elduaz

Maskowsky eta Prokofiev'ren eres-lanak jo zituen

Prokofiev'k orkesta zuzendari jardun eban, eta pianoz jo zituen bere lan batzuk. Zuzendari, ereskin-jotzale eta eresgile ofek txalo berorik jaso eban.

"Petit Parisien,'ek diñonez, esku artada otsez amaitu zan jai begikoa.

JAPONDAREN NAIKERIAK

Moscu.—Erbeste arazoai buruz idaru "Izvestia" egunkariak, eta laterie-ako auziak aztertu daroaz.

Kuomintang'en batzar nagoziari osoa ta garantzia erantsi nai dautsaz.

China'n japondarak darabilen erabilerkoa aipatu dau. Manchuria artu naiek, japondarak iradan bost urtetan darabilen jokaereak, argi ta garbi azaldu dau aren nai eta gurariak asetziñak diralá, efez beintzat azaldu dau izparingi ofek.

Lurraldetan ez dago mugarik japondarak naiko egin, eta aserik geldiko diranik, auferaka joan eta joan bai ostera.

Lurralde bat eskeñi-ala, areago nai dabe, China'n "imperio colonial" dala-koa ezari nairik dabiltz japondarok.

Japondafon agindukera ta laregikeriak bein betiko ezereztuteko bida bat bañó ez dogu, diño gero. Kuomintang dalakoa erikutsuz orniduagotu, eta txinatar guztiak gertu, azkatasun alde zindo eta gogor jokatzeko.

ITXAS-ESIA

Londres. — España birako itxasoak zaindu ta esitu bear dabezan sei Lateria'k iru orduko eztabaida ostean alkartu dira ta atondu dabez zainketa arazuok. Itxasuok esitzea edo zaintzea miloi bat libra esterlina kostako da ta dirutz ofen euneko amasei Inglaterra'k bere lepo artzen dauz. Portugal'go mugea zelan zaindu atondu dabe Inglaterra'k eta Portugal'ek Lord Plymouth'ek esan dabenez.

Itxaso zainketa edo esitze ori eragotzi guraz orain Rusia ebilela, be, esan eban Lord Plymouth'ek; Mediterraneo-aldea zaindu nai ei-dau Bizkaia'ko Itxas-kolkoaren ordez-ta.

MALAGA NORTZUK ARTU EBEN

New York. — Malaga paxistak artu ebenetik, iritzi asko dira atzeritar gudariak, italiar eta aleman, zenbatzu izan ete ziran, Franco'ren agindupean.

Uri ori artuteko bufukatu ziran paxistak 40.000 diralá diñoe, eta ziurtzat etsiaz esan bere, milaka moruak be arteko ziralarik.



Berna, Suiza'ko uri nausian jokatu da bilaketa txapelketia, ta, Butron'dar Jon bilbotarak lortu dau, bariz, munduko txapela. Ekiñaldi baten bosteun irukoitz ed o caranbola egin euzan.

KONTROLA EZARTEAZ

Gibraltar. — España'ra atzeritar gudarien joatea larunbat gau erditik galerazia dan afen, emengo agindari ingelandarak ez dabe agindu bariik artu arazu ofetzaz.

"ITALIA TA ALEMANIA, ESPAÑA'RI BURUZ, GELDI-GELDIRIK LOTUKO DIRA"

Roma. — Lengo egun batez ingalandar izparingi batek, "ez sartzeko" erabaki ta aginduak apurtu baiño ez zituala egiten jaulki zion aurpegi-aurpegira Italia'ko Gobernua'ri.

"Giornale de Italia" Mussolini'ren ametsez kutsututako izparingiko zuzendariak erantzun egin zion ingalandar izparingiari; Italia'k eta Alemania'k España'ko arazoetan azkatasun osoaz nastatzeko asmorik ez dutela, alegia, erantzun.

Geroxeago "Giornale de Italia,'ko zuzendaria jo ta ausi asi da ta Rusia'ren aurka erbiñude antzo lotu. Sovietaren gudontzi-taldea ez Atlantico'n eta ez Mediterraneo'tan, Italia ez du nai iñondik iñora ikusterik ere.

BELBIL-ERAKUSKETA BERIA

Copenhague. — Copenhague'ko izparingiak, lenengo orian, Berlin'en zabaldu dan belbil aretoaren berri eman dute. Ugariaren ugariz bereiztu dute besteengandik Berlin'go belbil-erakusketa.

BI URTEZ GEIAGO

Varsovia.—Lenago 1935'gnko. urrilaz Alemania'k eta Polonia'k egin zuten salerosketa artuemana, bi urtez luzatzea erabaki dute.

Von Moltke alemaniar enbajadoriak eta Seembeek konde atzeri-arazoetako poloniar ministruak izenpetu dute itunbena.

JAIOTZ-GUTXITZEAREN AURKA

Londres. — Garbitasun-aldeko ministru Sir Kingsley Wood'ek, jaiotzak gutxitzeari buruz, nai duanak nai duana esan eta gauzak aunditu baiño ez dituztela egin, esan zuan. Lau urteotan ez dala jaiotzarik gutxitu.

Oratio, gerokoari begira, neuriak artzea ondo iruditu zaio, ta esian izan oi diran joan-etorriak ondo zaintzeko agindua eman ertzaiñai, jaiotzak gutxitzearen zergatiak idorotzeko.

BATZAR-EGUN GAURKOA

Londres. — Auzirik garantzitsuena gaur, ostegunez, aztertuko du Laferi-Batza'k. Oraintsu etorri da Lloyd George Jamaica'tik eta batzarean itz egingo duanen itxaropena dago.

ALMERIA'RAKO JANARIAK

Almeria.—Sir George Yount'en kontura uri onetan egingo daben zauri-etxerako janariz ta osakaiz beteta Gibraltar'tik, Almeria'ratu da Ingalandar guda-ontzi bat.

EUZKO GUDA-OÑETAN

Arerioari iges egin eta gudari bat erdu da Elgeta'ra. Beste iru Ubidea'ra

Atzo gabeko bederatzi ta erdietan Guda-Zaingoak Euzkadi'ko lendakari jaun agurgariari emandako izparak auxe diñue:

Inguru guztietan etengabeko zunbaketa.

Geure morteruak ziatz-ziatz eta bear diran leku-basterak zuta-zuta eginda utzi ditu. Lekeitio'tik, "Santa-Kutz,'era ederak jaurti zituzten. Elbartik ere bai Arrate gañera.

Izuzkitza eta Legutiano'ko arerioaren zulo-basterrak ere ederki aztindu dituzte geuretarak Otxandiano'tik.

Arerioari iges egin eta gudari bat erdu da Elgeta'ko gudaoiñera. Amerika guḍalorokoa da izatez gudari ori:

Ubidea ere iru erdu dira. San Marcial efejimentukoak irurak.

BAI OTE?

Geure ukabilkalariak Europa-zear?

Pinedo, Arambilet, Bueno, Del Rio eta Ibarrondo

Kalean jaso degun marmara baiño u da ta galde ta galde baiño ez dagigu. Geure ukabilkalariak Europa zear edo joango ote diran entzun degu. Bai ote? Ba-litzake, balitzake, geure ostikalariak ere atzeriaren erea laster susmatzekotan dira-ta. Euzko abendaren bikain eta kemena agertzera joango ei'dira. Ia ba, mutilak, pogor ekin!

Eta... nortzuk dira baiña mutilak? Belari-ertzera esan dizkigutenak onetxek dira: Pinedo, Aranbilet, Bueno, Del Rio eta Ibarondo.

Bostekote makala ez da beiñepein. Joandako igandez Euzkalduna'n eman zituzten zartadak ez ziran beiñepein "geza-gezak".

Eta beriro ere ziur-ziur ez dakigunez, galderarj lotu bear. Geure ukabilkalariak Europa-zear joango ote? Nortzuk?

Alegiñak-alegin, jakingo degu.

Pelota

EREMONTEKOAK ETA PALAKOAK

Lengo batez Euzko-Gudarostea'k eremonte ta palako pelotariai dei egin zien eta pelotariok ederki erantzun. Geure txalorik beroena Euzko-Gudarostia ospetsuari ta ain zintzo eran-tzun duten pelotariai.

Palakoak, orain artekoak beiñepein, ontxek dira: Somorostro, Inza, Pasai, Otantia, Naru, Abasolo, Pruden gaskoa. Gaurdaiño entzun ditugunak dira onek.

Eremonte-zailean ere pelotari-bikaiñik ba-degu. III'gn. Abrego, Fitero, Lesaka, II'gn. Larañaga, Amenabar, Idiazabal eta Gurutzeaga "dozenan amairu" sartzen diranetakoak ez dirala uste degu.

Eta pelotariok dirala-ta, zer dio kukuak? Zera... laister igande ta jaietan gabaz pala ta eremonte jokaldi ikusgaririk izango degula.

Ez gera asare oraintxe kiroltzaleok! Ori, ori! Betor pelota!!

OSTIKOKETA

Regeiro'tar Koldobika il (G. B.)!

Regeiro'tar Koldobika (G. B.) il da! Zamalez jaso degu izpara. Madrid aldetik jasotazoa da: "Jarama'ko guda-oiñean, erkaldar gudari kementsu artean gudaketari zegokiola, il egin da Regeiro'tar Koldobika ostikokalari ospetsua". Eta, ondoren, otoi bat zuzendu diogu Goikoari, Regeiro zana betiko atsedenera sartu dedin.

Irun'go erasoetako egun garatzetan, guda-oiñean beti, arerioaren aurka. Izkillua eskuari josita zerabilen beti Asaldariak Irun'go lura zapaldu zutenean, baiña, beste askok antzo, frantzerakoa artu zuan. Geroago, lengo abeti-miñak eraginda Frantze utzi ta erkal-aldeko gudariakin batera, guda-oiñera erdu zan. Eta orain, aurkitu du eriotza! Jaunak Beragan dezala betiko.

Ostikokalari ospetsuenetakoa il da. Euzkadi'k izan duan jatorenetakoa. Ori bide, lengoan Europa-zear joango ziran ostikokalarien artean ez zitzaigun aztu Regeiro'tar Koldobika. Baiña... "gizonak asmatu ta Goikoak erabaki" dio esaera zarak. (G. B.).

GIPUZKOA-BIZKAIA

Geure Euzko-Gudarostia gora-gorake degu aspaldion. Egun batez ostikoketa-jokaldia, beste egun batez, pelota-jokoa, urengo ukabilketa, orain ostikoketa beriro ere. Etengabeko txaloak entzun ditu aspaldiko -unotan eta ondo merezitako txaloak irabazi ere.

Egitaraua ezin ederagoa, eskuratu digute. Euzkotara ostikokalaririk bikaiñenen izen lefokada degu aurean.

Bizkaia'k, onenak aukeratu ditu; berdin Gipuzkoa'k ere. Ona emen:

Bizkaia

Blasko
Pablito Aedo
Zilaurен Soladrero Zubieta
Ruiz, Iragorri, Bata, Larinaga Goros.

Gipuzkoa

Egia
Ciriaco Areso
Kuki Bienzobas, Mugertza, Roberto
Insausti, Unamuno, Langara, Olivares, Sanchez Arana

Ordezkoak

Izpitzua Rojo, Mandalunitz, Markuleta, Euzkalduna.

Ez al da jokaldi ikusgarria? Bai ikusgarirk bada. Biar geiago. Agur.

Italia eta guda izkilluak

nglaterra'ren izkillu geitzea dala-ta italiarrak min.-Abisini'ko gudea ezta oraindik amaitu.-Gabre Marian il da.-Abisini'ren azkatasun zale sutsua zan.

JHON WHITAKER'EK ROMA'TIK IGORI DAUAN IDAZLAN BATEN AUXE DIÑO

"Ingelatera'ren guda-izkilu-ta guda-gai geitzea Italia'k beronen kaltez dala uste dau ta italiaren eta ingelaterafen adizkidetasuna eten-agiñean dogu. Adizkidetasunoi Mediterraneo'ko Egiunea egin zanean asi zan eta España'ko "ez-sartzeko" arazuotan geitu besterik ez da egon adizkidetasunoi.

Izparingiak Ingelatera'ren aurka aundiak esan dabez ta azkenean paxisten begiko ta Mussolini'ren mofoi zintzo dan Virgio Gayda izparlariak "Giornale d'Italia" izparingian Ingelatera'ren eta Prantzia'ren izkillu geitzea Italia'ko paxismoaren kaltez dala ta "Italia'k guda-izkillu ta guda gai geitze bizkor orein jokerearen azalpena eskatzeko eskubidea ta eginbeara dala" idatzi dau.

Ingelatera'k ezetz baiña Italia'k bere guda gai ta guda-izkiluak Italia'ko zergiñetarako dabezena argi ta adorez adierazo ei-dau Gayda'k diñonez.

Izkiluak Laferi Batza aldezteko bear dabezala diñoanean zer esan nai daben Ingelatera'k galdetzen dau Gayda'k.

Ingelatera'ko Aldundi Nagusia'n izkillu-geitzea zala ta sortu ziran eztabaidetan Gobernua'ren ordez ta mofoi antzo jardun diranak Ingelatera'ko guda izkillu geitzea Laferi - Batza'ren eginkizunetarako dala esan dabe.

Italia'ri Abisinia beretzea Laferi Batza'k galerazo nai izan eutsonean, Japon'ek Mantxuria menderatu ebanean, ta Chaco'ko gudan ikusi zan Laferi Batza orein zuzutzik -eza, ta Laferi-Batza oferi laguntzeko geitu gura dauz Ingelatera'k bere armok. Eta bajta paxismoak Laferi azkatzaleren bat erpeperatu edo paxista biurtu nai dabenean laferi orei laguntzeko be, guda-izkillook geitu nai dauz. Orixe diñosku Gayda'k.

Lengo urtietan Prantzia'k eta Ingelatera'k asi eben guda-izkillu geitzeoi Italia Abisinia beretu dauala ta pozik dakuzanean eta Hitler'en Alemania'k Europa'ko bakeari eusteko bide egoki ta bereziak azaldu dauzanean, guda izkillu geitzeoi bizkortu gurarik doguz Laferi orein Gayda'k diñonez.

Baltsakeri edo comunismoak ez dau ikaratzen Prantzia, baltzakeri-zaleekin alkartuta dogu ta; Ingelatera'k ostera Europa'ko Laferi-artean komunistak, be, eurei yagokuen tokia bear dabela uste dau.

Euzko-emakumiaren gixarte-lanak

Euzko-ekandubab biztu

Ona emen euzko-emakume begikua, beste gixarte-an bat. Ekanduba eri-bixijaren agerpena da; berau dala-ta, euzko ekandubak galdu dauzan erija, odolez euzkotara ixanda be, ixatez ez da euzkotara. Tamalez euzko eri-ostubaz etori dira eta bijotz bako erija eri ila da. Zetarako gura dogu euzko-azkatasuna euzko-bijotza atzeritasunez lotuta badago?... Sabin, gere Irakasliak eta beragin euzkotar bikañak "Euzkadi azkatzeko euzko-gogua azkatu biar dala" dirauskue eta egiz esan be.

Eta onetan be onuratsuben geu emakumiok jokatu gegike. Umiakandik asi ta gizon elduakanaño ekin geinskijo. Baseri txikijak aide batera itxi ta garaiko eri ta urijetako umiak begizkatzen badoguz, erfuki darkafizketak... zelako ekandubak... ¡Gastiakana uferatzen ba-gara, otz ikarea nabaituko dogu: birauak... lixunkerijak... izparingi gauzezak... dantza nastuba— ganorabakokerija— elbururik eza. Gizon ekandubak eurak be elexarako otz-samafak... birauari gafantzirik emoten ez dautsenak... ardandegi ta akeitetxe zaliak... españaftasunez aseta diran izparingi ta ikuskixun zaliak...

Euzkotara onetara dagola. Zetarako dogu Euzkadi azkatuba? Euzkadi'k azkatasunaz euzko-goguaren azkatasuna eskatzen dau ta euzko-goguak azkatzeko atzeri-zalekerijak geure bijotzetatik jaurti ta euretan euzko-zaletasun-esne sendoa ixuri biaf dogu.

Geure dantza arin garbijak zergaitik zabartu dauz euzko-gastiak? Zergaitik zaletu oren gartsu dantza nastubagaz? Egizko euzkotara ez dalako, bijotz-zokondora euzko-goguaren deadar negartija eldu etxakolako. Dantza nastuba egiten ez daben bakotxean euzko-emakume bakotxari bost ogerleko emongo ba'leuskijoez, egingo ete leuka dantza nasturik? Ezetz dirudi. Zergaitik? Bost ogerlekuak dantza nastuba baño maitiago dabezalako. Berau dala-ta, ba, dantza nastubak euzko-goguari dagitsozan kaltiak ezagutu ta dantza nastuban jrai daruan emakumia ez da egizko abetzalia, azalezko abeftzalia baño. Eta emakumiok gura ba-geunka dantza nastuba ade batera itxi ta lastef geunskijo indar bedegafa emon geure euzko-dantza garbijari. Eta dantzeatzaz diñoguna euzko-abetijatzaz esan gegike. Guk daukaguzan eresi samur-maitakof-efime sutsu ta goitafak euki eta "María de la O.", "María Magdalena", "Rosío" ta ofetariko abesti gazbage, motel, emakoi ta lixunkeritsuz geure espar-bijotzak zikindutia... ¡Ezin ulertu dot! Edo obeto esanda ofetara jokatzen daben euzko-emakumiak euzko-zaletasuna galdu dau.

Bai-laukagu nun lan egin emakumiok. Ez dagigun aiztu: euzko ekanduai, euzko-jolas ta dantzai, euzko-abestijai ta euzko ixatiari euzk-bixija emoten alegintzen dau ta euzko-goguak azkatzeko atzeri-zalekerijak geure bijotzetatik jaurti ta euretan euzko-zaletasun-esne sendoa ixuri biaf dogu.

Geure dantza arin garbijak zergaitik zabartu dauz euzko-gastiak? Zergaitik zaletu oren gartsu dantza nastubagaz? Egizko euzkotara ez dalako, bijotz-zokondora euzko-goguaren deadar negartija eldu etxakolako. Dantza nastuba egiten ez daben bakotxean euzko-emakume bakotxari bost ogerleko emongo ba'leuskijoez, egingo ete leuka dantza nasturik? Ezetz dirudi. Zergaitik? Bost ogerlekuak dantza nastuba baño maitiago dabezalako. Berau dala-ta, ba, dantza nastubak euzko-goguari dagitsozan kaltiak ezagutu ta dantza nastuban jrai daruan emakumia ez da egizko abetzalia, azalezko abeftzalia baño. Eta emakumiok gura ba-geunka dantza nastuba aide batera itxi ta lastef geunskijo indar bedegafa emon geure euzko-dantza garbijari. Eta dantzeatzaz diñoguna euzko-abetijatzaz esan gegike. Guk daukaguzan eresi samur-maitakof-efime sutsu ta goitafak euki eta "María de la O.", "María Magdalena", "Rosío" ta ofetariko abesti gazbage, motel, emakoi ta lixunkeritsuz geure espar-bijotzak zikindutia... ¡Ezin ulertu dot! Edo obeto esanda ofetara jokatzen daben euzko-emakumiak euzko-zaletasuna galdu dau.

Bai-laukagu nun lan egin emakumiok. Ez dagigun aiztu: euzko ekanduai, euzko-jolas ta dantzai, euzko-abestijai ta euzko ixatiari euzk-bixija emoten alegintzen dau ta euzko-goguak azkatzeko atzeri-zalekerijak geure bijotzetatik jaurti ta euretan euzko-zaletasun-esne sendoa ixuri biaf dogu.

Geure dantza arin garbijak zergaitik zabartu dauz euzko-gastiak? Zergaitik zaletu oren gartsu dantza nastubagaz? Egizko euzkotara ez dalako, bijotz-zokondora euzko-goguaren deadar negartija eldu etxakolako. Dantza nastuba egiten ez daben bakotxean euzko-emakume bakotxari bost ogerleko emongo ba'leuskijoez, egingo ete leuka dantza nasturik? Ezetz dirudi. Zergaitik? Bost ogerlekuak dantza nastuba baño maitiago dabezalako. Berau dala-ta, ba, dantza nastubak euzko-goguari dagitsozan kaltiak ezagutu ta dantza nastuban jrai daruan emakumia ez da egizko abetzalia, azalezko abeftzalia baño. Eta emakumiok gura ba-geunka dantza nastuba aide batera itxi ta lastef geunskijo indar bedegafa emon geure euzko-dantza garbijari. Eta dantzeatzaz diñoguna euzko-abetijatzaz esan gegike. Guk daukaguzan eresi samur-maitakof-efime sutsu ta goitafak euki eta "María de la O.", "María Magdalena", "Rosío" ta ofetariko abesti gazbage, motel, emakoi ta lixunkeritsuz geure espar-bijotzak zikindutia... ¡Ezin ulertu dot! Edo obeto esanda ofetara jokatzen daben euzko-emakumiak euzko-zaletasuna galdu dau.

MAITE

Abisinia'ko gudea ezkero Ingelatera'ren aurka egin izan dan idazlanik zitalena Gayda'renoi dogu. Idazlan-buruan guda-izkillu-geitze ofen azalpena eskatzen dautse Ingelatera'ri Gayda'k.

Eredu-ofetako idazlan zitalik edozelan ezin argitaldu daike ta, aldi oneitan gafantzi aundia daukonez eraso ofek, Mussolini'k onartu eban ausago argitaldu orduko idazlanoi.

España'ra bialtzeko gudari-bila dabiltzanei zigof astunak leporatzea erabagi dau Italia'ko Gobernua'k. Arazo onetan Prantzia'ren eta Ingelatera'ren lankide dakusgu Italia.

Prantzia'ren eta Ingelatera'ren asmoak asmo Mussolini'k Franco'k garaipena lortu dagian alegiñak-alegin egiteko asmoa dau.

Atzoko italiar izparingiak Etiopia Ipafaldean dagozan italiar gudariak etiopiaren zapustu aundia emon dautsoela diñoe ta adufa darioela esan be. Addis-Abeba'ko izpafak diñoenez Laferi uriburu ofetan bakea dago ta Graziani'renoi jazo zan ezkero 30.000 italiar gudari dabez an.

Negus'en agindupean Efi-Zaintza'ko Arduradun izan zan Gabre Mariam il da italiaren aurka abisiniafak egin daben azkenengo erasoan. Ekiñaldi ofetan abisiniafak esi baruan saftu ebezan italiar gudariak. Abisiniaren gudalburu batzuren aftean Degiac Bayone Merid espe aftu eben eta beingoan erail eben.

Gabre Mariam'ek italiar gudari-aginta riei bake txafa emon izan dautse ta kez katan euki izan dauz. Orain ile batzuk italiaren aginpidea onartu ostean, Addis-Abeba'tik iges egin eta abisiniar gudari azkatasun-zaleen gudalburu zan Ras Desta'renganatu zan.

Ras Desta orixe izan da azkenengo guda-ekiñaldiok italiaren aurka sortu dabezana.

Oindiñokaren Italia'ren agindupean bizi naiez daben abisiniatar taldeak menderatzeko Gabre Mariam ori iltea auferakada aundi etsi izan dabe italiar agintariak.

EGUNA

JEL

Atzo, Oviedo'ko atetan,
Errezola jaunagoz egoala
eriotzaz zauritu eben
paxista ankerrak
Saseta ospatsua.

Lgo. urtla | 47'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 24'gna. eguaztena | 15 eunen

AZKENENGO IZPARRAK

Oviedo'n aurreraka, geldiro baña sendo

Arerioei iges eginda kabo bat eta gudari ugari igaro dira kataluniar gudariekana.-Ingeles itxasontziak Gibraltar'en batzen asi dira.-Alemani'k ezetan ez sartzeko batzordearen erabagi guztiak beteko ei ditu.

SUAGAKA

Valencia.—Goxaldeko iruretan egaztu zan arerijuen itxas-egazkin bat itxaso baster aretako uri batzuben gañian. Ainbat suagada jaurti ebazan, baña ezeban lortu berak gura eban begi-biderik.

Ordu bi beranduago, beste arerijuen itxas-egazkin bat agertu zan onek be ainbat suaga jaurti ebazan; oneri euren aurkako suagadak jaurti jakezan, egaztu ziran eizako egazkin batzuk, eta itxas-egazkiñak igeska jarri ziran.

"Gazigezak"

—¡Aguf, "Pototo", eguraldi onaz pozik etori be!

—Bai, ba, ostarte dagola-ta, ibilaldi bat emonaz etori naz gauf.

—Baña, ¿uste dozu eguraldi ona jarraiko dabela?

—Bai, mutil, nik bayetz "pentzetan" dot.

—¡Tira! Ez egixu esan olako erderakadarik.

—¿Ze erderakada?

—¡Ai, motel! ¿Ondiño olan zagoz? Egunoro euzkeraz irakuften, eta ¿eztakixu "pentzau" erdera dala? ¡Euzkeltzale edera gero!...

—¡Bai zera! ¿"Pentzau" erdera dala? Orixe beintzat eztot entzun iñoz.

—Ba oraintxe entzun dozu. Obeto etofte ba- yatzuz itz au txafto dagola-ta, beste ori ondo dagola-ta esaten; eleuke biaf txaña eukiko gero... "Pentzau" erderazko "pensar" da. Eta "pensar" euzkerazko itz oneikaz esan leike: "Aste-ixan, oldoztu".

—Ba nik eztot pentzetan—¡bafiro be!—ori erderatik datofenik, daba Lopez-Mendizabal'en iztegijak be "pentzatu" esaten dala diño-ta... iztegijak imintzen dabenian zer-edo-zegatik iminiko dau.

—¡Ai ene! Zu lako astakillorik nun? ¿Eztozu ikusten "pentzatu" ofen izkijak eztirala bestiak lako bardiñak? Ikusi egixu, afen, lenengo ofijetan, izki bardinge edo "cursiva" ofeik zer dakufen. ¡Ai, Pototo, Pototo! Ezagun da bai zure "pistula" demontre ofek tamalduta zaukazana!...

Baña, ostera, be, gure Pototo'ri tenke -izpijak dargi, ta diñost:

—Eta gañera... "Kirikiño" ixanzana euzkeltzale ospetsubak be, esakun auxe dakaf "Abafak" deritxon idaztijan.

—¡Benetan gero zarala gixon ezkatxa! Abaf batzukaz biaf dozu zuk aztinduta, ta burutik-bera biaf be. Adiu egin biaf da zelan esaten danan. Irakuri ta jaraipenan esan eztozuz esan biaf gauzeaz; irakuri, oldoztu ondo ta esan gero-baño. Esakun ofeik eztira "Kirikiño" berberarenak, eta imintzen dauzanian—¡adiu ondo!—efijaren aguan imintzen dauz, au da lagunabararen aguan. "Kirikiño" bai ixan zala lenengotarikuena erdel-itzak jauftzen eta basterfzen!

Ia, ba, ekin zuk erime euzkerea ikasten, baña ez gero iztegifik, eliztijetatik baño. Edefak daukozuz euki be eliztijak Bilbao'ko idaztegijetan: "Método gradual para aprender el euzkera", Euzkeltzale Bazkuna'ren iru idaztitxubak, edo "Gramática de la lengua vasca, método Ollendorf", dozuz bizkayerazko euzkel-elizti onenak.

¿Ba-gara?

ARATS BERAN

Elorio'tik.

Asturias'en

Aurrerakadea geldiro, baña sendo

Gijon.—Araisaldeko lau ta erdietan erkaldarak asi eben joaldiak sutsu darai.

Erkaldarentzat izpar onak doguz. Aurerakadea ondo dua. Aiko maiko guztiak ezin esan daikeguz, baiña bide onez dua erasooi. El Escamplero'n gau guztian ixiltzeka, atseden gabe gudatu dira. Gauf goizaldean adoretsu guda bizienean genduzan erkaldarak. Oftik duan bidea menderatu dabela diñoskue oftik yatofkuzan izparak.

Oviedo'n dunbadoska ikaragafia dogu ta uriburu onen esia estutuaz dua, eri-aldezleak kaleak-zeaf aurera duaz.

Bigafen aldiz eldu zan itxas-egazkiñak kaltjak-kalte egin ebazan.

APURKA-APURKA AURERA

Madrid.—Atzo gabeko bederatzi ta erdijetako guda-izparf berezijak diñoenez, Guadarrama eta Escorial'en suagazko gudaketa gogoftxuba ixan da. Alde bijetatik baña kalterik gabe, efi-aldezlien artian.

Gaur efi-aldezlien gudarijak ainbat eupada egin dabez, eskuzkuak atan be. Arerijuak gogor eutziten dau, baña alan da be egoleku bafijak artuten jafatuten dabe erkaldafak. Jarama'ko guda-oñetan efi-aldezlien taldiak ederto jafatu dabe euren auferakadetan eta danetan irabazi da zerbait.

Beste guda-oñetan ezertxubez.

ASI DIRA UŔERATZEN

Valencia.—Gibraltar'etik artutako izpaf batek diñoenez, asi da Mediterraneo. Ingalandafen guda-ontzi taldia batuten.

Amabost batekorartekuak eldu ei-dira, onetatik zaspi 4.500 upelada edo toneladako kruzerusak beste enpairuak 1.500 toneladako apurtzale edo destroyefak.

Bata eldu da Malta'tik, "Susex" ixeneko 7.500 upelada edo toneladako kruzeruaere.

Beste iru guda-ontzijen elduera iragafi da.

Onetaiko kruzeru bakoitxak egazkin bat darua bere bafuan.

Euzko-Ekintzako gudalburu Mitxelena, Saseta, Lazkano-Loyola ta Rezola, Trubia'ko bastartxu baten.

Españar gudako izparrak-eta

Queipo de Llano barritxua Madrid'era?-Paxistei egindako kalteak. - Jarama aldeko burruka bitartean. - Paxistak iñoizkorik nagien. - Beste izparrak.

EFIAK SUAGATZEN

Madrid.—Alcala de Henares uria bafiren bafiz suagatu dabela diñue.

Efiak, gudearekin zer-ikusirik ez daben efiak suagatzeak asafe bizia softu dau guztien aftean. Suagaketa ofen ondorenen bafirik ez dogu.

MADRID'GO GUDA-OIÑETARA QUEIPO DE LLANO?

Madrid.—Sevilla'ko Gudalburu bafitsua Jarama guda-oñetako joaldiak zuzentzera Madrid'era, daruela zufumufua dago.

Egia izatea ba-daike, Madrid'go guda-oiñetako joaldiak zuzentzen dabezan alemandaf Gudalburuak azaletiko erantzupena España'ko Gudalburu'ren batek aftzea naj dabe-ta. Euren buruak azaltzea kaltegafi izan daikjue alemandaf ofei-ta.

Queipo baiño gudalburu jatof ta jakitunago doguz izan Yague ta Varela; baiña alemandaf gudalburuen mofoi izaten lotsa dira efazoiz, matxiñada au softzeko olotsarik izan ez dabenaren. Alemandaf Gudalburuokin ezin ondo alkaf aftu dabe gaiñera, ta egunoro eztabaidaka yabilkuz.

Queipo de Llano ostera iñoren mende egoteko egokiada ta edozeinekin alkaf aftu daike ofek, ezertarako gai ez danafen, eta orixegaitik eruango dabe kontizu Jarama guda-oiñetafa.

IZPAR-GEBENTZA TA QUEIPO

Valencia.—Orain egun batzuk bafiketaldi baten Queipo'k Madrid datofen ilaren zeigafenerako aftuko ebela esan eban.

Izpaf edo eritxi ori paxisten izpafingietan ez da argitaldu, izpaf-gebentzak (censura) ez dautsoe laketu ta.

LANERA EDO GUDA-LUBANETARA

Barcelona — Barcelona'ko Udale'ko Gizafte-Laguntza'ko Idazkarjak 72 orduren buruan 20.000 iges egindako Barcelona'ratu dirala esan dau.

Ofein aftean 18 urtetik 45 urteraffeko gizon asko eldu ei dira. Oneik guda-lubanetara edo guda-luban-giñara juatera beaftuko dabez. Ume emakumeentzat begiramen guztiak, alpefentzat begiramenik ez.

JARAMA ALDEKO BURUKA BITARTEAN

Madrid.—Efizaleak Jarama ibai aldean aurerakadan Valencia'rako bidea paxistaz garbi utziten jafdun eben bitartean, Madrid'eko efia pozez azaldu zan kontrola ezafi zala-ta.

España'ra geyago atzeftaf gudaririk ez joateko kontrola ezafte ori, efizalien onerako izango dala uste da. Orafte italiaf eta aleman soldau piño andiak eldu yakez paxistai ezetariko eragozpen barik, eta efizaleak, ordea, ez dabe ofejako laguntasunik izan.

Kontrol ori eta gero, ilaren zaigafenean ezafik dau España'ko itxazertz eta mugaen bloke dalakoaz. Valencia'ko Gobernuak gauzak aufera lenbailen eroanaz, egoera ori labufagotutea iritxiko dau beaf ba'da, ta ori gafantzitsu ta mesedegafi izango leukie efizaleak.

PAXISTAŔAK IŊOIZKORIK NAGIEN

Alcañiz.—Inguruotan paxistafak bizi diranen aztafenik ere ez dute ematen eta iñoizkorik nagien lotu dira.

Erkaldafak, beriz, euren guda-oiñak gogoftzen jafdun diarduta. Arerjoaren aufera egin-nai guztiak luf-jota gelditu dira. Efkaldafak egunean eta zaletsuago ekin diote ta agintariai geroago ta lotsa geiago agertzen diote.

PAXISTEI EGINDAKO KALTEAK

Madrid.—Guadarrama aldea be Miaja gudalburuaren agindupean ipinteko asmoa dau Gobernuak, eta asmo ori aztertuten asi da.

Guadarrama ontatik, Pozas generalak diñonez efizalien gudasalak Talavera noiz aftuko dauke, ta Toledo be euren su-pe daukela.

Madrid'eko izpafingiak diñoenez, paxistak 2.500 gizon gitxiago ditue, il eta zauritutan, Jarama aldeko burukaondoren. Bart be, 450 gudari preso aftu eutsezan paxistei.

Arganda zeaf efizale gudasalak sail igaroten dira guda-oñetarantz.

VALENCIA'KO BIDEA EŔIZALEAK OSORO

Madrid.—Ezkertaf jendeak bataloi bafjak antolatu ditue, eta joaldi gogofean Levante'rako bideen joan-etofia euren mende aftu dabe, Jarama-ibafetan bufukaldi izugafi ondorean, paxistei atzerantz eragifiaz.

San Martin de la Vega ta La Marañosa inguruan asi eben aufera kadea efizaleak, talde asko ta tresna ugari bilduaz, eta bide ori euren agindupe aftu eben.

Tanke, suagakari, egazkin eta oñezko gudari asko gertau zituen Miaja'k joaldi ofetarako. Ta indaf guzti oneik iñoren erasoai eutsi ezezik, bultzadan efizaleok asi eta ekin egin beaf dabela esan dau Miaja'k.

Bufukaldi auxe, gudearen amayera be izan lejtekela-ta, bufukaldia efizaleak joaldiz egitea garantzi andiko dala.

Euzko - Ikastola - Batza

Efotatxueta eta Belostikale'ko Euzko-Ikastoletan izena emonda dauken ikasle guztiai adjerazoten yake, ikastaroa epailaren 1'an (astelena) asiko dogula, eta eurak etofi ezik ikasle bafiak aftuko doguzala, lengoak ikasle -eskubideak kenduaz.

Ikastola oneitan saftu gura leukienak deitu begie uŕutizkin onetara: 14.289 edo Belostikale, 1, 1º gora etofi daitezela.

"CRITICA" IZPAŔINGIA ITXAROPENTSU

Buenos Aires. — "Critica" izpafingijak, Madrid'en daben izparkari berezijaren bitartez, gudalketako garantzi andiko izpafak azalduten dau. Eta, egun gitxi bafu Madrid'eko guda-oñak aldakuntza andija artungo dabela diño. Efi-aldezliak aufe-rakuntzak egiteko jafi diran afen osoz gudatuten diralako.

Agintza batasunak emon dabezala, diño, emon biaf ebazan igalijak.

Eta izpafkarijak, ila bi bafu, Valencia'ko Jaurlaritza'k Madrid'era zuzenduteko eria ixango dabela gaiñera.

Ostera asaldarijak buruak muga ondurantza egingo dirala iges egiteko efestasuna ixan dayen.

ITALIAŔ ZINTUAK

Buenos Aires.—Italiaf talde aundi batek asi dau España'n Erkaldiez gudatuten diran aldezko arpide eta laguntasunak bialduteko lana.

Onek esku-zabal asko aurkitu ei-dabez, eta laster ixango ei-dabe España'ra bialduteko janari eta ostontzekoak.

Bata italiaf pilo bat gertuta dago España'ra etofi eta España'ko Jaurlaritza'ren onduan eta agindupian jarteko.

IZKILU TA GUZTI IGARO BI PAXISTAŔ

Barcelona. — Gaur gabeko guda-izpaf berezijak auxe diñue:

Ipar aldian betiko zunbaketa ariñak.

Arerijuagandik iges, eginda, gudari eta kabu bat aurkeztu dira euran izkilubakaz.

Egoralbo inguruan: arerijuari atzera eragin eta egoleku bafiak artu dira.

Beste guda-oñetan ezertxubez

KOMUNISMUA EZ SORTZEAŔEN?

Montevideo.—Alemania'ko enbajadiak daben ordezkari bitartez agiri bat zabaldu da, alemanak paxistai lagunduten dautsela diñarduenari aufera urten guran.

Laguntza au ukatu barik, diño, Alemania'k alegin gustijak egin dabezala, gudia asi zan ezkero España'ko gudiaren gora-beran.

Eta Alemania'k komunismua aureratu eztayen egiten dabezan alegiñak egin afen, "Ezetan ez sartzeko" agindu gustijak lortsiaz beteko dabezala diño.

Alegiñak-alegin

Estabe ezer lortuko

Paris. — Frantzia'ko ta Inglatefa'ko ordezkari batzuk España'ko gudea ta alkaf-iltea burutu daiten alegiñak egiteko asmoz batu dira.

Etiopia'n eta Mantxuria'n jazo danik jazoterik ez dabe nai. Ofein artean izentatu daben Batzordea'ri euren laguntza osoa eskiñi dautse Mexiko'k, Lateñ-Batuak eta beste latefi batzuk, be. Paxistak azpiratzeko "Latefi-Taldea" sortu nai dabe.

Batzaftuta dagozan ordezkariok pozik doguz. Itxura onez agiri dira. España'ko gudea eragotsi dagien Paris'era, Londres'era ta beste Latefi batzuetara laguntza eske zuzendu dira.

Polonia'n

Politika alderdi barria

Varsovia.—Igandeko ifatsaioan, Koc generalak, sortu dauan politika alderdi bafiaren egitaraua azalduten jardun eban.

Alderdi bafi ofen elburua, polonitaf guztiak batutea ei da, Pildsuski mariskala zanaren adizkide eta ostantzeko.

Gudarostea izango ei-da estadu zai indartsu eta bikañena, asmo ofen araber. Ugazaba ta langilien arteko auzi gordiña alkartasun egokiz lotu, eta jugifiai laguntasun andia emon.

Jakidi, erti eta elerti alde egundoko lana egingo ei-dau. Sinismenari dagokionez, uskurtzera gustiak aintzat artuko ditu, baña lotsa berezia izango ei-dau katoliko Eleiza'rentzat. Efi eta efi-taldeentzat, minoriaș nacionales diralakoak, begiramena izango ei-dabe alderdi ofen aldetik.

Poloniaf efian komunismoak, ordea, ez dau lekurik Poloni'ren izaera gaidua legoke Poloni komunista biurtuaz.

España gaizkatzekotan... edozer

Izpafingiak diñoenez paxistak, elizetan eta lekaimetxietan sartu, ta, afapatzen daben gustia ostu daroe, saldueteko.

Paxisteak.—Zorgiñori! España s albau biaf danian, Jainkua bera be ¿Esaldu dakete la eztaki"?